

# ANAITASUNA

260. zenb.

1973.eko irailaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.<sup>o</sup> - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## MITOAK DIRELA ETA



Neure zenbait lanen ondorean, ez nuke osan beharrik, ez naizela mitozale eta bai mitologizale. Baina ez dakienak jakin beza.

Omenaldi zale ere ez naiz, eta gaur ugari eta odonori egiten zaizkion omenaldiena are gutiago. Omenaldiak, gai edo espezialitate batean lan bereziak egin dituztenek merezi dituzte, batez ere urte askoren ondorean hildoz hildo zintzoki jarraitu dutenek. Holakoa izan da, aurtan J. M. Barandiarani Ataunen egin zaiona. Lehengo, berak erabili dituen gaietan jakitun diren intelektualek egin zioten, 1971.eko «Munibe» agerkaria bereziki

eskaintzazko lanez horniturik; eta orain herria bera izan da, bere herrian omenaldia eskaini diona.

Euskal Herriko kultur zaleek zorrik asko bazioten ere, herriak ere, bere literatura jaso eta baliatzeaz, ez zion guti zor. Baina nik pertsonalki nuen berarekin holako zorra, hainbeste irakaspene eman zidalako. Gainera, irakaspene guztiak ez ziren etnologiaren ingurukoak; giza jokabide mailakorik ere jaso nuen. Guztiongatik pertsonalki bera agurtzera agertu beharrezkoa nuen; eta inoiz



## Mitoak direla eta

haurren mailan aurkitzea ere ona dela usterik, han nintzen haurren egun hartan, euskal mitologiako ipuinak hain gogotsu irensten dituzten geure Unai eta Oier mutikoekin.

Beraren ctxean, aspaldiko jaun adiskide bat ere aurkitu nuen, eguerdi hartan. Bi senar-emazteok Barandiaranekin elkar hizketa labur bat izan genuen; eta honetan ere ba zen ikastekorik. Don Jose Migel harriturik zegoen, beragatik hainbeste jendetza etorri zelako eta hainbeste «alferrikako» zeregin hartu zutelako. Berak ez zuela holakorik merezi. Beste jaunak, baietz, ongi merezia zuela, bizitzan zehar cgin duen lanagatik eta duen adinagatik.\* Baina berak:

—Nik? Nik zer egin dut, ba\*? Nire lanbidea hau denez gero, lan eta lan egin. Gizon guztiek edo gehienek bezala, lan egin. Hargina edo mekanikoa izan banintz ere, berdin.

Hala ere, bestea ez zegoen horretan.

—Baina, baina zure lana —esaten zion— hain izan da berezia eta hain jakituriazkoa!

—Baina, lana. Eta, hori bai, ahalik eta ondoen egiten zaildu\* naiz. Eta hori beste lanbide batean ere berdin egingo nukeen. Ni, beste edozein gizon bezalakoa naiz, ez gehiago eta ez gutiago.

Birtarteko sartu nintzen, besteari adierazteko, Don Jose Migel mitologoa zela, baina ez mitogilea, eta bere buruarekin ez zuela mitorik sortu nahi. Eta berberak tinkatu\* zuen esanez uste hori zuela.

Lehendik ere ba genekien, critzi horretakoa zela. Baina gehiago oraindik. Besteak, «zuk hori, zeure izate apalagatik egiten duzu, noski» esan zionean, Don Jose Migelek crantzun: «Ez, ez! Ni ere ez naiz zuk uste bezain humila; nik ere neure harrotasunak ditut. Harroa naiz, gizakiak, bere izatetik edo, hori berarekin duelako. Baina egiaz aitortu nahi dut, ez naizela beste inor baino gehiago».

Mitoak jendeak egiten ditu; baina gizon jakitunak nekez sortuko ditu. Ikerketa lanetan ari direnak, ase ezinezko jakin nahiak bultzatzen ditu gehienbat, eta ez dituzte beren lanak egiten, bihar edo etzi norbaitzuek eskertzeko, ez. Holakorik uste duenak, lehendabizi bere burua argitu behar du, edo bere buruan duen nahasmen-dua garbitu behar du, argiago ikusteko.

Ihazko urtean, F. Ruiz de Arkauteren elizkizunak zi-rela eta, espeleologian ari direnak edo inoiz ari ginenak bildu ginen Larraitzen. Ez, gero, akelarrea antolatzeke, espeleologigintzaren alde erabaki batzuk hartzeko baizik. Han bertan gertatu zen egun hartan Luis Haranburu-Altuna ere. J. M. Barandiaran presentatzea eskatu zidan, eta hala egin nuen. ZERUKO ARGIAN artikuluak idazten zituena zela esan nion. Ez nion esan, Larraizko akelarrean, zuzendari gisa\* edo, parte hartu zutenetako zenik.

Haranburu-Altunak, mitologizalea zela esan zion Don Jose Migeli (gaur edonork daki hori ongi). «Ni ere bai —erantzun zion hark—, baina ez zuek zuzpertz\* nahi dituzuen mito horien zale». Haranburu-Altunak zirikada hura ulertuko zuela uste nuen. Baina geroztik irakurri ditugunetatik, nik neronek zalantzak\* ditut, holakorik ulertu ote zuen. Nork esan du, berak ezik, L. Mitxelena-ren mitoa? Gero, AGUR eta GOIZ-ARGIkoek argi eta garbi agertu nahi izan digute, ez mitoa ez dela, baizik «maisurik» ez dugula ere bai.

Hasieran agertu dudana bezala, mito-sortzaileengandik neure burua apartatu nahi nuke (beharbada mitologizaleei komeni ez zaigulako, nahi duenak har beza nahi duen bezala). Baina puntu honetan gauza bat bakarrik argi laga\* nahi nuke: Itsurik ez dugula behar itsumutiltzat. Eta Mitxelena, oraingoz, mito ez baina maisu dugula linguistikan, eta euskal linguistikan bereziki. Eta ez da goela eskubiderik, zenbait buruberorengandik entzun dituenak entzuteko. Gutiago, jaso dituen irainak\* jasotzeko; batez ere, mitoa zer den bereizten ez dakitene-gandik.

Mitxelenak ez du izan gure agerpenik, maisu bezala azaltzeko. Berak, bere ahalmenez, bere buru lanez irabazi du maila hori; eta herbestekoek (gure arteko hizkuntzalari gutti batzuk izan ezik) aitortzen dute haren jakinduria eta ahalmena.

Linguista ez banaiz ere, neure karguagatik oso hurbildik\* bizi izan ditut azken urte hauetako aurrerapen eta batasun nahizko problemak. Ikusi dut, biltzarreetan zer itzal duen Mitxelenak, linguistikaz dakitene artean. Ikusi dut, bizkaiera ere guk bestean ba dakiela (eta aditzari buruz ezer badakit, honetaz ezer esango nuke; baina nik esan beharrak Orixek berak nire ohoretan agertu zituen «Karmel» aldizkarian); eta Erronkarikoan ere ezer galdetu beharrik izan nuenean, berari jaramon\* egin nion eta ez beste batzuei. Ikusi dut, Euskaltzaindira agertzen diren galdera korapilotsuak askatzeko (nahiz linguistikaz, dialektologiaz, bibliografiaz...), beste inork ezinean, beragana jotea aski\* izan dugula. Ikusi dut, bere «marfilezko torre» horretatik ere, eskatu zaion bakoitzean, zelan\* «jaitsi» den gure herri maila honetara. Ikusi dut, zenbat eta zenbat lan, zenbat ordu doharik\* eman duen gure eskariz. Ikusi dut, gizon langilea, euskarak duen premia larrienaren garaian, bizibeharragatik dolu-minez herbesteratzen (hau ere, inork badaki, nik ondo dakit, erabakia hartzeko orduan eta partitzeko tenorean\* egin nizekion bisitengatik). Eta abar eta abar.

Mitologigintza arinetan ari direnek, arinkeriak bilduko dituzte beren liburuetan, emaitza fruitukorrik eta anaien elkartasunik guti baino guttiago eskainiz. Eta Banestoko edo papelgintzako akzioen kontura bizi direnak, arin jolastuko dira, nahiz Errosarioko Amari kandelak jartzen edo nahiz Marxi erreberentziak eskaintzen eta beren gisara bizarrak apain erabiltzen. Sakela txanponez betarik duten artean, ondo jolastuko dira, besteen semeen ogiaz gehiegi larritu gabe.

«Fuga de cerebros» delakoaz ardura? Hobe, jakitun guztiak joango balira. Itsuen herrian, betokerra nagusi.

JUAN SAN MARTIN

beza, **bei**  
digute, **deuskue**  
dio, **deutso**  
nion, **neutsan**  
nizkion, **neutsazan**  
zaigu, **jaku**

zaio, **jako**  
zaizkio, **jakoz**  
zidan, **custan**  
zion, **cutson**  
zioten, **cutsoen**

### ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.

**Zuzendari ordezkio:** Imanol Berriatua.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XXI. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.



# "BRETTON WOODS" (1945)

## edo USAko diru krisiaren iturria

Esan genezake, kapitalismoaren historian ba direla zenbait konstante, beti edo ia beti gertatu direnak. Esate baterako, enpresak sakabanaturik zeudén ekonomia batetik, monopolizaturik dauden beste batera iragan da: Estatu eta erakunde ekonomikoen arteko harreman ezatik, lotura haunditza batera (monopolio estatal fasera); erresuma bakarti eta erdi autarkiko batzuetatik, elkar katigatu eta uzkalduetako batzuetara, eta abar.

Gerrate ostean, higidura hau oso bizia izan zen, eta USAren inguruan egindakoa, hain zuzen ere.

Urte hoietan, USAren nagusigoa jadanik gauza nabarmena zen; eta datuak gura izanez gero, nahi adina daude. Adibidez:

a) USAko industriaren eginkortasuna edo produzio gaitasuna honela mugitu zen, indizeetan jarriarik: 1939.ean 100, 1945.ean 131.

b) Zifra hoiek berez asko esan nahi badute ere, USAren aurreratze ikaragarria ezin daiteke adieraz, Europaren beherakada kontuan hartzen ez badugu. Ikus:

Europaren pasiboa edo zorra (1945) ... .. \$ 260.000 milioi  
USAren aktiboa edo hartzekoa (1945) ... .. \$ 42.000 milioi

c) Bestalde, honela hazi zen industri produzioa garai horretan (1937-1943):

USA	... ..	+72
Europa	... ..	-1
Munduko besteak	... ..	-1

USAk, neurri gabeko botere hau dela medio, Europa eta beste erresumak zeharo kikildurik eta menpeko oduki ahal izanen du, eta ekonomian ezetik politikoki ere nagusi azalduko da. Hitz batean esateko, botere honek sitemaren bizkar hezur integratzaile bat bezala jokatzeko permititu dio USARI.

Bere inperialismoa aurrera eramateko, era guztietako gainerresuma erakundeak sortzen ditu: militar aldetik eta jabegoa zaintzeko, NATO, SEATO eta beste; ekonomia aldetik, berriz, Banku Mundiala, GATT eta, nola ez, diru sistema berria (Bretton Woods-en ezarritako Urre Ganbio Patroia edo «Gold Exchange Standard» sistema).

Konturatzen bagara, USAk 1944. urtean dadukan nagusigoarekin, Britainia Haundiaren kasuan aipatzen genuén super-erresuma baten arazo bura berriztatzen zaigula dakusagu. Eta, lehen, erakunde gehienak Londresko City-ren zerbitzuan bazeuden, orain Wall Street-en onerako egonen dira. New Yorkeko banku handien zerbitzurako, hain zuzen.

New Hampshire-ko Bretton Woods herrixka horretan bi soluzio bide irakurri ziren: bata Keynes ekonomilari inglesak aurkeztutakoa, eta bestea USAko White-k proposatu zuena. Espero zen bezala, azkeneko hau izan zen onhartua, ez noski hobea zelako (Keynes-ek sistema egokiago bat defendatu zuen, urrea baztertuko zuena, «bankor» izeneko txanpon berria sortu nahiz, eta abar), baizik eta amerikanoek beren nagusigo horri etekina atera nahi izan ziotelako.

White-ren arauekin antolatutako Nazioarteko Diru Erakundeak abantaila hau ematen zizkion USARI:

a) Erakunde honen barranean eta erabakiak hartzeko garaian, botoak Estatu bakoitzaren errentaren arabera ematen dira (hobeto esanik, kuotaren arabera, baina hau haren proportzio bat dela). Honela, USARI botoen % 30 tokatzen zaio.

b) Urre Ganbio Patroia hartzen da diru sistematzat. Hemen-dik aurrera, likidatasuna, harreman ekonomikoak errazteko beharrezko diren paper eta banku diruak bi oinharritan finkatzen dira, hots, dolarrean eta urrean (askoz ere neurri tipiangoan libran ere bai). Horretaz gainera, nazioarteko merkatalgoa bai urrearekin eta bai dollarrarekin egin daiteke. Jendeari berdín zitzaion sakelean dolarra nahiz urrea edukitzea. Erresumetako erreserbekin ere hala-xe gertatzen da, zeren eragozpenik ez baitzegoen batera USAko txanpon hori urrearekin trukatzeko. Bakarrik USA eta Britainia Haundikoez ezin zezaketen joko honetan parterik har: galerazia zedukaten trukea.

c) Trukatze hau, urre ontza bakoitzeko hogeita hamabost dolar emanez egingo zela erabaki zen Bretton Woods-en, hots, gerra aurrereko prezio berean. Hau, edozein aldetatik begiraturik, bidegabekeria handi bat da, zeren ez baitzuten kontuan izan garrarekin sortu zen inflazio ikaragarria (% 200 baino gehiagokoa).

Bigarren gerrate ondoan, Europa txirtxillatua zegoen eta beharrezkoak zituen hainbat eta hainbat produktu eta ondasun, bere erakitzeko. Eta, jakina, munduan bat zen, eskaini zezakeena: USA. Baina lehen aipatu dugun trukatzeko horren «berezitasun» hori dela medio (gerra aurreko neurrian egitea, noski), produktu hoiek Europak garestituta erosten zituen. Adibidez, Italia makina baten premium dago. Nora joanen da bila? Bada, inora joatekotan, USARA, hau baita gerratik tente irten den erresuma bakarra.

USAN 3.500 dolar balio duen makina bat erosten du. Baina, nola Italiak dolarrik ez dadukan, urrez ordaindu beharra daduka derrigorez, eta, lehengo arau horri jarraituz,  $\frac{3.500}{35} = 100$  ontza urre eman go dizkio.

Eta hau Italiarentzat alukeria bat dela dudarik ez, zeren, inflazioa kontatu izan balitz, ehun ontzen ordez 50 bakarrik bidali beharko baitzuten (% 200-eko inflazio batekin, urre ontza batek 70 dolar eta ez 35 balio du eta).

Ez da harritzekoa, beraz, urre guztia Fort Knox-era ziztuan joatea: 1948.ean munduko erreserben % 71 USAN zegoen.

d) Europa dirurik gabe gelditu zen, eta hazkuntza baten gurian. Bestalde, USAk Europan zedukan merkaturik onena, Marshall laguntza etorri zen orduan, baina bi baldintza nagusiren pean:

- nahitaez, laguntza horrekin erosiako ziren produktuek Ipar Amerikarrak izan behar zuten.
- Europak amerikanoen inbertsioei atea zabaltzeko behar zizkien. Egoera honek 1958. urterarte iraungo du.

JOSETXO EZPELETA

daude, **dagoz**  
dio, **deutso**  
genezake, **geinke**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**  
zeuden, **egozen**

zezakeen, **eikean**  
zezaketzen, **eikean**  
zioten, **cutsoen**  
zitzaion, **jakon**  
zizkien, **cutsezan**  
zizkion, **cutsozan**

## GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda  
erregalutarako gauzak  
Euskal liburuak  
Papeteria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - BILBO - 11



# Arratiatik Lapurdira

Maiatzaren 31n, Baionako feria zabaldu zen Euskal Kultur Egunarekin; eta Arrangoitzen,\* egun berean, Ikastolen Eguna ospatzen zen. Aukera zegoen, eta nik bietarakoa hautatu nuen. Leku bi horietan ikusi nuena kontatuko dut. Lehen aldia zen horrelako festa-aldi bat ikusten nuela.

## LAPURDI ERE EUSKAL HERRI DA

Norbaitek idatzi zuen, Bilbaoko gorria maiteago zuela Iparraldeko berdea baino, maiteago zituela lantegiak kostaldeko turismakeriak baino. Esan nahi zuen, cuskaldungoaren abiadura errotuago zela lantegien arteko arazo bizietan, industriariek gabeko lorategietan baino. Harentzat, burdin labeek gorri pozoiitzen duten zorupe hartan dago nonbait Euskal Herriaren zorzea.\* Nik, aldiz,\* nahiago nuke hemengo partean burdina gehiago eta hango partean ximinietako ko jario gutiago balitz. Gauzak beren neurrian, hobekiago.

Nork ez daki, Hegoaldea (eta hemen Bilbao bereziki) eta Iparraldeko biziki diferenteak direla gizarte egitura aldetik? Mundu guztiak daki, errekek urak, Bidasoakoak halaber,\* ez direla alfer gaiztotan pasatzen erdi erditik eta urterik urte. Ipar Euskal Herria, hala ere, zutik dago bere tipian, eta zutik nahi dugu. Gorriago edo berdeago edo zuriago, nahi dena, bai (horretarako aukera denean); baina lehenik zutik nahi dugu. Dena den, Bilbao edo beste edozein herri bezain Euskal Herri dugu hau ere. Ohar hau badaezpada\* egiten dut.

## BAIONAN

Baionan urtero bezala, feria bat muntatzen da, gauzen erakusteko: makinak, etxe tresnak, ganaduak... Feria honek maiatzaren 31tik ekainaren 11rarte irauten du. Hamaika egun doi\* doia. Lehen eguna —frantses agintaritzak hastapenetik\* herrialde honi ohore egin nahirik, noski— cuskal kulturaren eguna izan da. Han ikusi genituen zenbait kantari talde, dantzari talde eta beste, ofizialtasun honi beren arteak plegatzen. Ez zen han nehondik\* ere cuskal girorik sentitzen. Jendea, mahaiaren gainean jan-edanean, irri eta barreka ari zen. Artistak kabaretetan ari ohi diren giroan ari izan ziren kantariak taularen\* gainean. Jauntxo batzuen entretengarri eta gehienek aspargarri, Egia esan, Baionako feria hau, cuskal kulturari gogozkiola bederen,\* egiazko engainamendu bat iruditu zitzaigun, cuskal arazoetatik urrutiratuek goinagusientzat apropos crositako jaialdi bat funtsean.\* Itxurak behar ziren egin, herrialde hau Frantziako cuskal «erregio» bat dela adierazteko. Eta kito. Horretan dago, ofizialtasunak cuskaldungoari egiten dion ohorea. Hau behintzat nahiko garbi ikusi genuen.

## ETA ARRANGOITZEN...

Eta Arrangoitzen Ikastolen Eguna. Egun handia cuskalzaleontzat. Hemen giroa cuskaldunagoa zen, Baionakoa ez bezalakoa, halafede! Hain zuzen, Iparraldeko ikastoletaz arduratzen diren gehienak han ziren, han haurren gurasoak, han andereñoak, han cuskalzale anitz.\* Aretu\* paregabe hura\* beterik zen.

Ikastolen festa honek bihotzean hunkitu\* gintuen. Zergatik? Herri deuseztu\* eta orori baten zutitzeak zer sufrikario eta zer neke dakarren, orduan ikusi genuelako; eguneroko ekintza kulturean ari direnen izerdiak zenbat urte balio duen, orduan dastatu\* ahal izan genuelako. Ikastolak, oraino atzo amets huts zirenak, egun\* indartzen ari dira. Urtero hostotzen\* den landare gazte bat bezala dira ikastolak. Pozarren\* entzun dugu, aurtan ere ikastola berri batzuk\* zabaldu direla. Zer hobekiago! Ikastolen lana arras\* isila da, luzea, nekeza; baina, gerora begira, hortik etorriko zaizkigu fruiturik iraunkorrenak. Horregatik, lan horretan dihardutenak oro,\* esker onez behar genituzke kuraiatu.\*

Ikastolen eguna baitzen, haurren aguna zen bereziki. Zeinen\* ederkiki kantatzen zuten, zeinen prestuki lan egiten! Eta hau esatean, Baiona eta Hendaia ikastoletako hurrek eman ziguten ikuskaria dut gogoan. Norbaitek lan egin zuen seriooki, haur haik\* egoki eta hain buru zorrotzez prestatzen. Andereñoak, pedagogian lauratuak, zuentzat dira gure goresmenak.

## «OIHARTZUNAK» KANTARI TALDEA DELA ETA...

Arrangoitzen ezagutu genuen kantari talde hau. Egun berean, Baionan ere egin zuten beren saioa. Guztitara, sei ziren: hiru mutil eta hiru neska; baina, esku seguretik\* jakin genuenez, bidean taldeko lagun bi galdu zituzten. Soinez lur onean eginak, eztarrian

hari itsusirik ez, eta traturako finak. Gorbea mendiaren pinetan dagoen ibarretik, Ikastolen Eguna alaitzera etorri zirela esan zigun mutil bizardun batek, mikroaren ahotik. Batera espanturik gabe mintzatu zen cuskara ederrean eta bertsolarien etorrian. Lau kanta eman zizkiguten; horietarik bi Etxepare poeta zaharren bertsoak. Esanen nuke, jendea gehiagoren gosez gelditu zela. Segur!

«Oskorri» hil dela, eta «Ez dok Amairu» desegin dela irakurri eta entzun dugun tenore\* honetan, «Oihartzunak» bezalako talde batek itzaropenez betetzen ditu gure bihotzak. Talde honek ba du pisua, ba daki ondo kantatzen, saiatzen da publikoaren desirak eta premiak betetzen. Segi dezala zintzo bere lanean. Guk hemendik, Iparraldetik, «berriz arte» esaten diogu.

«Oihartzunak», ez dut dudarik egiten, atxanditik sartu da kantaren munduan. «Aita» hil duen semearen gaztaroan bezala gaude, hots,\* bere nortasuna duen talde baten aitzinean\* aurkitzen gara.

P. UBILLOS

dezala, **daiala**  
dio, **deutso**  
diogu, **deutsagu**  
gaude, **gagoz**  
genituen, **genduzan**  
genituzke, **geunkez**  
gintuen, **ginduzan**  
zaizkigu, **jakuz**  
zigun, **cuskun**  
ziguten, **cuskun**  
zitzaigun, **jakun**  
zizkiguten, **cuskuezan**

## Irakurleak idazle

### Euskal irakasleen premia Ondarroan

Geure aldzikari horretan, ahal bada behintzat, ohar edo dei hau ipintzea nahi genuke:

Ondarroako Herri Ikastolan, E.G.B.rako irakasleak behar dira.

Deitezketan, egin liteke, goizetan, bertoko 24. zenbakira.

Idazteketan, zuzenbide honetara: Cooperativa de enseñanza «Eguntentia». Cruceño, 9. Ondarroa.

Mila esker,  
Zuen lagun,

E. Z.  
Herri Ikastolako idazkaria

### Urnietako «Egi-Billa» antzerki taldearen deia

Lerro hauen bitartez dei bat egiten diegu cuskal teatro idazle guztiei, batez ere beren lanak argitaratu ez dituztenei («Agora» Sariketan sarituak izan ez direnei eta abar).

Mila kausagatik, Euskal Herrian obra asko daude ilunpean. Hutsune hau bete nahiz, cuskal teatroari bultzada bat eman guraz, eta geure taldearen ihardunkizunari begiratuz, pozik ezagutu eta ikertuko genituzke haien obrak, haien lanak.

Harreman hestuegokoak nahi badituzue, edo obrak bidaltzeko prest bazaudete, hemen doa gure zuzenbidea: **María Arizmendi Isasa. Casa Arizmendi. Urnieta (Guipúzcoa).**

Mila esker aurretik.  
M. A.  
Taldearen zuzendaria



# Neure lantokitik

## IKASTOLENTZAT

Erdaraz liburu bat argitaratu da titulu honekin: «Catálogo General de Libros de Enseñanza». Oso interesgarria deritzogu ikastolentzat, eta, eskatu nahi izatekotan, leku honetara egin daiteke: Alcalá, 45. Madrid (14). Haren prezioa, 50 pezeta.

Euskal liburuekin ere honelako zerbait egin behar genuke; baina, oraindik ez ere dugularik, inork ikastoletarako testu liburuen berri jakin nahi badu, dei nahiz idatz dezako ANAITASUNARA, han baitago horretarako bulego berezi bat muntatua.

## BERRI BITXI BAT

Hitzez hitz kopiatzen dut, eta idatzita dagoen bezalaxe, erdaraz, irakurleak berri mamitsu hau osorik jaso dezan:

Barcelona. Don Juan Echevarría, secretario general de «Motor Ibérica, S. A.», comentó muy galanamente, y con gran fluidez de palabra, la reciente situación conflictiva de la factoría de Pamplona, diciendo que la Empresa no había sufrido ningún daño, añadiendo que «la Empresa nunca será enemiga de los obreros», y que los obreros de Pamplona habían pedido «la expulsión de los causantes de la huelga». «Ni leemos homilias —dijo— ni leemos panfletos», al referirse a ciertas informaciones exageradas de ciertas publicaciones, no sin cierta ironía...

Norbaitek pentsa lezake, hau «Jaimito»tik jaso dudala; baina ez, astekari oso serio batetatik kopiatu dut, «El Ecomista»tik, alergia\* (4.365. alea, 1900. horrialdea).

## GASTEIZKO IKASTOLA

Ikastola honek, irudiz beteriko liburuxka oso apain bat argitaratu du; eta bertatik estatistika hau kopiatuko dut, ikus dezazuen nola lan egiten duten Gasteiztarrek beren ikastola handitzeko:

Ikastaroa	Ikasleak
1963-64	14
1964-65	22
1965-66	29
1966-67	34
1967-68	85
1968-69	171
1969-70	245
1970-71	334
1971-72	426
1972-73	496
1973-74	576

Gasteiz inguruan 19.000 m.<sup>2</sup> lur crosti dute, ikastola berria egiteko.

## IKASTOLAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Lapurdikoa Arrangoitzen\* 300 guraso elkartu ziren, «Ikastolen Eguna» ospatzeko. Eman ziren informazioetan agertzen da, ihazko presupostua 22 milioikoa izan zela, eta ia\* dena gurasoen saketetatik irten\* zela. Kontseilu Jeneralak zerbait laguntzen du, eta Udalteke\* batzuek ere bai; baina Parisetik ez dator inolako laguntzarik. Datorren ikastoroan lau ikastola hasiko dira lanean, eta presupostua 30 milioira iganen\* da.

## MIRARI EKONOMIKOAK

Ekonomian ez dago miraririk. Gauzak ondo egiten badira, ondorioak onak dira, eta gaizki eginez gero, txarrak. Jokutzen den araberak\*.

Ikus ditzagun Mendebaldeko\* Alemania eta Japon. Azken urteotan Estatu bi hauek aurreramentu handi bat lortu dute, eta gaurko moneden artean markoa eta yena dira indartsuenak.

Alemaniak eta Japonen galdu egin zuten gerra 1945. urtean eta hondaturik geratu ziren. Hori kalte handia izan zen. Baina gerraren irabazleek debekatu egin zieten soldaduak eta harmak odukitzea, eta hau mesedegarri izan zitzairen. Hortxe, debeku horretan dago, hain zuzen, Estatu bi hauek eduki duten aurreramentuaren oinharria, zeren\* dirua, harma eta soldadutan eraldi\* beharrean, infrastruktura egoki bat sortzen onplegatua baitzuten; eta honek ekarri du, ondorio bezala, ekonomiaren iganaldia.

Aitzitik, Amerikako Estatu Batuak Vietnamen hondatu dira, eta 1945.ean gerra irabazi zutenek —Rusiak, Britainia Haundiak eta besteek— ez dute behar besteko\* aurreramenturik egin, harmatan eta alferrikako gastutan gehiegi xahutzen\* dutelako.

## EUSKARA IRAKASTEKO TITULUAK

Guztiok dakikegunez, Euskaltzaindiak ematen ditu euskara irakasteko tituluak, azterketa batzuen ondoren. Baina, oraintsu irakurri

dugunez, titulu horik\* Nafarroako Diputazioak ere emango ei\* ditu, eta beharrezkoak izango omen\* dira Nafarroan euskara irakasteko. Derioko Seminarioan ere gauza berbera egitera omen doaz, eta tituluok baitezpadakoak\* izango ei dira Bizkaian Elizaren ikastoletan. Oso ondo ikusten dut, Eliza eta Diputazioa euskarari buruz kezkatzea. Baina zertarako titulurik eman, Euskaltzaindiak hori egiten badu? Ez ote dago Euskaltzaindia horretarako, euskara arloan maitatu izateko?

Gauzak honela aldrebestuz badoaz, laster ikusiko dukegu\* Euskaltzaindia umeak bataiatzen eta zergak\* kobratzen; eta, halafede, azken hau ez litzaioke gaizki etorriko.

## EXTRA ORDUAK

Gaur crakutsi didate, kuriositate bezala, langile baten soldataren likidazioa. Uztaileko likidazioa, konkretuki. Ba dakizue zenbat extra ordu egin duen langile horrek uztailean, hau da, hilabete baten barruan? 140 extra ordu. Honek, zerbait esatea merezi duela uste dut.

Enc ustez, konbenioak egiterakoan, langileek ordu normalakatik soldata handiagoak eskatu behar litzukete, eta extra orduen kentzea, zeren\* hauek kalte hauk\* sortzen baitituzte:

- osasunak ezin du hainbeste extra ordu ondo hartu.
- extra orduen postu berriak sortzeko bidea hersten\* da, eta, beraz, langile asko lanik gabe gelditzen da.
- familiari, kulturari eta deskantsuari denbora kentzen zaie.

Langileek gehiago irabazi behar dute, hori bai. Baina ordu normalaetan. Besterik egitea, gizona neurritik kanpora explotatzea da, goian aipaturiko kasuan legez\*.

## ALTSASUA

Uztailak\* 30. Turisten berebilak\* oten gabe pasatzen dira, orreskada luzean. Frantzia, Britainia Haundia, Belgika, Alemania... hainbat lurraldetako matrikulak. Batzuk han geratzen dira, zerbait jateko nahiz edateko, eta berebiletatik gaztelaniaz berba egiten jaisten gileak.

Iluntzean, musika taldea jotzen hasi da kioskoan. Bederatzi dira: omigranteak, Europan zehar sakabanaturik dauden espainol lanra musikariak, eta zuzendariak berak ere jotzen du, neurria buruarekin markatzen duen bitartean. Soinua arina da, eta umeak (umeak dira, dauden dantzari bakarrak) saltoka dabilta, arrapaladan,\* kioskoari jirabiraka.

Ziri-miria hasi da jausten. Nire alboan andre talde bat dago Altsasuan bizi, baina imigranteak dira, Espainiako hegoaldeetik etorriak. Deitzen dio andre batek mutiko bati, janzen dio borlazo euskaletxamara bat, eta ba diotsa: «Póntelo, qu'ézte zirimi moja» Eta nik orrespetuz eta emozioz begiratzen diot.

## URDIAIN

Iruinerako bidean eta Altsasutik hiru kilometrotara, herri zoragarri hau aurkitzen dugun. Bidearen eskuin aldean, etxeak eta eliza. Ba dirudi, Urdiaindarren artean norgehiagoketa bat dagoela, eta nork etxexa txukunago ager. Plazan bar bat dago, eta komuneko atean ez da irakurtzen ez «WC», ez «Caballeros» eta ez beste honelakorik. Plaka bat dago euskaraz, eta hau dio: «Egintzak\* lasai».

Herritik ezkerretarantz, eta bidexka bat harturik, igertokietara\* joan zaitezke. Handik, mendialderantz, toki liluragarriak daude: zela berdoak, pagoak, haritzak, mondi loreak, perretxikoak... eta zoritxarrez, sardin lata hutsak eta botella apurtuak.

Hautariko tokirik politenean, mendixka baten gainean, elizatto bat. Atearen goialdean, eta harrian idatzirik, itxura zaharreko irakurgeta bat ikusten da. Leku hartantxe VIII. mendean Nafarroako lehen erregea aukeratua eta izendatua izan zela adierazten duena. Baina euskaldunon tristurarako eta gure ezker eta eskuin aldeko sasi-unibertsalisten pozerako, hitzak gaztelaniaz idatzita daude

XABIER GEREÑO

daude, <b>dagoz</b>	ditzagun, <b>daiguzan</b>
dezake, <b>daike</b>	lezake, <b>leike</b>
dezan, <b>daian</b>	litzukete, <b>leukeez</b>
dezazuen, <b>daizuen</b>	litzaioke, <b>litzakio</b>
didate, <b>deuste</b>	zaie, <b>jake</b>
dio, <b>deutso</b>	zieten, <b>cutseen</b>
diot, <b>deutsat</b>	zitzaien, <b>jaken</b>
diotsa, <b>dinotso</b> , esaten dio	



# Gure Munduko Albisteak

## Liburu berriak

### «Lanaren antropologia». Roman Garatek, GEROn

Bilboko Ediciones Mensajero aterata, uda honetan argia ikusi du Roman Garate jaunaren lehen euskal liburuak, **Lanaren antropologia** deritzonak. 317 horrialdetako obra mardul honek GERO sortako 25. eta 26. zenbakiak betetzen ditu, eta Pedro Osés-en azal puntillista dotore batez horniturik dator.

Mamiari gagozkiolarik, gainbegiratu bat besterik eman ez diogun arren, seriotasun kutsu aparta eman digu lan honek, metodologia bikainez taxaturik baitago, bibliografi aipu\* ugarietz lagunduta. R. Garatek, bere liburuaren horrialdeetan zehar, kontsidero jeneral batzuen ondoren, berak darabilan gaiak, beste batzuen artean, Marx, Althusser, Marcuse, Freud eta Fromm-zer kritizitakoak izan diren adierazten digu. Ekonomia, Philosophia eta Psikologia artean sintesi bat ogiten ahalegintzen zaigu autore hau, azkenean, gaur egunean gizonak, bere askatasun giazkorako, zeintzuk baldintza behar dituen aztertuz.

Oso mesedegarria, liburuak azkenaldean dakarren hiztegitxoak, obraren barrenean aipatzen dituen kontzeptuetarako hitz zerrenda egokiz, nahiz eta, zergatik ez dakigularik, bere aurretik jadanik\* erabilitako hitz batzuei, halako kasuren batetan, jaramon\* handirik egin ez. Hizkuntza standard bat lortzeko, nik uste, idazleok ardura gehitxoago erabili beharko genuke honetan, nor bere bidetik ibili gabe.

Bibliografiarako: GARATE, Roman: **Lanaren antropologia**, Ed. Mensajero, Bilbo, 1973.

### «Euskaldunen ipuin harrigarriak». Martin Etxeberriak, JAKINen

M. Etxeberria jaunak, 1972.ean, Nanterre-ko Unibertsitatean presentatu zuen azertze lana argitaratu digu JAKIN editorialak, 208 horrialdetako liburu apain gisa.

Egileak, Mme. Ramnoux-en gidaritzapean, hamabi euskal ipuin jator gaitzat harturik, Vladimir Propp errusiarrak bere **Morfologija Skazky-n** (= «Ipuinaren morfologia») azalduko metodo estrukturalistaz baliatzen da, euskal herri ipuinetan azaltzen diren kontraera egiturak azaltzeko.

Azterketa hau, hasierako ideia orokor\* interesgarri batzuen ondoan egina, oso ongi burututa dago, holako unibertsitari bati dago-kionez, eta ez du guregandik txalorik beroenak besterik jasoko.

Akasño\* bat topatzekotan, erdea, guk geuk hauxe aipatuko genuke: obraren izen benetan «harrigarria». Izan ere, egileak aukeratu dituen ipuinak ez dira, gure eritzi apalean, batere harrigarri. Esplika gaitezen: antz ematen du, ipuin horik\* indoeuropar tradizio komune-koak direla, hots,\* Euskal Herrian gabe, beste odozein tokitan ere jaso zitezkeela. Izan ere, **Alaba eta alabaordea**, **Txerrenen adina**, **Tartalo** odo eta **Eiherazalaren** ipuinak, halako ukitu ttipitto ezberdin batzuekin, ia ia **Txano gorritxorena** bezain unibertsalak ditugu European, beste gabe «euskal» ipuin «harrigarri»tzat jotzeko.

Gauza jakina da, Afrikako ipuinen barreneko lotura eta logika ez direla inondik ere indoeuropar Herriena. Afrikar ipuin batetan zeharo logikoa dateke,\* armiarmak\* elefanteari izugarritzko jipoi\* bat ematea, indoeuropar tradizioan ezinezkoa dena; eta «beste» logika honetan datza\* hain zuzen ere, Afrikar Herrien kultur tradizio bereziaren sustraia. Euskaldunok, noski, indoeuropar Herrien artean bizi garelarik, ba ditugu, hobe\* ez, europar tradizio zabal horretatik ipuinak, bai eta, ordea, tradizio zaharragoren batekoak ere. Ene kritiziz, geure euskal sustrai zaharragoen bila abiatzeko, horixek\* ongienik aztertzen saiatu beharko genuke.

Azkuek eta Barandiaranek, alderdi honetan, ordainezinczko altxor\* bat utzi digute bildurik ipuinetan, aztergaitzat. M. Etxeberriak, gainera, europar tradizio komuneoetarako, Propp-en metodoa bikainki aplikatu digu; ez digu dudarik egiten, beronen atzetik beste-lako ipuinei ere, Propp-en eskhementan hain ongi sartzen ez direnei, apika\*, bai bera eta bai beste unibertsitari batzuk ere gogoz ekinen\* zaizkiela hurrengoan. Hitz batez, gerolan baterako, lan oinharritzko eta interesgarria Etxeberriarena.

Bibliografiarako: ETXEBERRIA, Martin: **Euskaldunen ipuin harrigarriak**, Ed. JAKIN, Donostia, 1973.

## Aditz batua

Uztaileko\* bileran, euskaltzain osoek aho batez (15 boto baie-zko eta 0 ezezko) berrespensa\* eman zioten, Euskaltzaindiak orain dela urte bi izendatu zuen batzordeak proposatu berri zuen aditz la-guntzaile systemari.

Ontzat harturiko aditzak, beraz, **ukan**, **izan**, **ezan** eta **edin** dira, indikatibo, sunjunktibo eta pontentzial era guztiekin, hikakoak salbu. Aditz laguntzailearen zerrendak Euskaltzaindiak argitaratuko ditu edizio ofizial batez. Berau prestatzeko kargua, gainera, aditz batzordearen idazkari den aita Patxi Altunari eman zaio, beronek lan bikain bat eginez.

Aditz batuaren lehen edizio ofizial hau aurten publikatuko da; eta JAKIN editorialak jadanik tratu bat egin du Euskaltzaindiarekin, berak 1.000 ale zabaltzeko.

Hemendik aurrera, beraz, euskal idazleek, irakasleek eta Herri osoak ba dukete,\* aditzaz, eredu ofizial bat, Euskal Akamediak berak emana. Beharra, nor uka, ba genuen guztiok.

Gelditzen dena, beraz, hikako formak eta aditz syntetikoak dira; baina, antza denez, aditz batzordea Gabonetan berriro bilduko da, puntu horietan ere lehen bai lehen akordio batetara heltzeko. Hala biz.\*

## Jon Etxaiderekin bat gatoz

Bai, ba gatozela esan behar, ZERUKO ARGIAN euskal orthografi-az idatzi zuen artikulu hartako puntu gehienetan behintzat. Guk geuk ere orain arte ez dugu ongi ulertu zergatik, **ez** beti bereiz idatzi behar den artean, baiezko **ba** ere ez ote den, modu berean, aparte idatzi behar, baldintzazko **ba-** elkartutik bereizteko. Bizkaian, eztabaidetan maiz\* entzuten da honeiakorik: —Ez da! —Bai da!, azkeneko **bai** hori **ba** forma laburtuaren era zaharragoa delarik.

**Bait**-en kasuan ere, honetan bitara idazteko askatasuna dagoen arren, gure kritiziz, hobe dateke\* beti loturik ezartzea, irakurtzeko erraztasunagatik besterik ez bada ere, **bait da** gisakoak ez baitira inola ere irakurgarri.

Dena dela, ba dakigu. Euskaltzaindiaren erabakiak, puntu askotan, alda daitezkeenetariokoak direla; eta idazleek eta herriak dukete, honetan, azken hitza beti. Hala ere, duda gabekoa da, nola odo hala, orthografiaren anarkhiarekin bukatzeko, Euskaltzaindiak halako erabaki batzuk eman behar izan zituela; kausitu\* zuen ala ez, denborak esanen, ordea.

## El Correo Españolko «Euskal gehigarria»

Ihaz bezala, aurten ere **El Correo Español** izeneko bilbotar egunkariak gehigarri bat eskaini digu udan, XX. mendeko euskal literaturari buruz.

Hartan, Erkiaga jaunaren lan burutsua eta zentzuduna ezik, beste guztiak izugarritzko alderdikeriaren ispiu garbiak ziren, eus-kara eta euskal literatura osoa talde erlijioso konkretu baten ja-bego pribatua balira bezalako itxura eman nahirik. ITXAROPENA, JAKIN, LUR edo GERO editorialak, kasu,\* ez ziren bertan ezertar-ako ere aipatzen, berauek urtero euskal liburuen % 90 atera arren. Eta hori gaurko euskal literaturaren panoramika objektibo bat ematea baldin bada...

Are\* txarragoa zen, eta kaltegarriagoa, noski, Euskaltzaindi-ren kontra, dugun euskal erakunde\* printzipalaren kontra, hain zuzen, halako erdal plataforma publiko batez baliatu direnen ka-sua; eta honelakorik ere egon da, hemen izenik aipatzea soberan dagoelarik.

**La Gaceta del Norte**k, guti bada ere, astero zertxobait ematen digu argitara euskaraz. **El Correo Español**ek, ordea, euskaraz-korik ezere publikatu ez arren, krokodilo nigarrak isurtzen dizkigu urtean behin, «gure euskera maitea» ba doakigula eta. Phariseu guztiak ez ziren, noski, Kristoren denborakide.



## Bilbo Zaharreko kaleak euskaraz?

Nik neuk ez dakit zertan dabilzan Bilbo Zaharreko merkataria; baina, Euskaltzaindiaren aktetan ikus daitekeenez, ozezko eman diote Euskaltzaindiari, beronek, deferentzia gisa,\* laster argitaratuko duen denda eta ofizioen izendegiaren patrozinoa eskatu dienean. Agian\* **El Corte Inglés**era jo beharko du Euskaltzaindiak diru bila, berauk, Bilbo Zaharreko dendarien kritiziz, Madriltiko deabru birpiztuak eta antieuskaldunak badira ere.

Euskaldunoi eta euskarari jaramonik\* ez digute egiten, ez horixe; baina gero, **El Corte Inglés**era crostera goazenean, ez dakit zer eta ba dakit nor ontzun behar izaten diegu. Zer mesede egiten digute, ba,\* haiengana joan gaitezen, **El Corte Inglés**en eskal ofizialki jarri direnean, beraiek beste horrenbeste egiteko gauza izan ez badira? Gauzak argiro, kontxo!

Orain, Bilbo Zaharreko merkataria «bertoko», «bilbotar» eta «baskoak» (Txillardegik beste izen batzuk\* ere aipatuko lituzke) beren hantoteziari merkata:\* indarra eman nahirik, kaleen apaintzeari ekin\* zaizkio, azpitan baldosa\* dotoreak eta ezarririk. Ez zaie burutik iragan,\* ordea, hain bertokoak diren arren, Bilbo Zaharreko kaleei beren jatorrizko euskal izenak ipintzea, Somera gabe, kasu\* **Goienkale**, Tenderia-ren ordez **Dendari kale**, Arcnal gabe, kasu\* **Areatza**, Barrencalle-ren lekuan **Barrenkale**, eta abar... Zamarriparen hiztegiak holaxe dakartza, oso ongi.

## Mozambikeko hilketen inguruan

Wiryamu-ko gertaerak izugarriak izan dira. Portugaleko soldaduek herri oso bat garbitu dute. Gizon, emakume, haur, zahar eta gazte: guztiak hilak eta bortxatuak izan dira Mendebaldeko\* zibillazio kristauaren izenean. Egia esan, ez da oraingoa, zoritxarrez, portugaldarren lehenbiziko masakrea; baina, misiolari zintzo batzuen lekukotasunaz,\* krimen horien oihartzuna\* mundu osoan zabaldu izan da aurten.

Bretainia Haudian eta munduko beste herrialde askotan manifestazioak eta protestak egon dira Portugaldar gohertu genozida



eta imperialistaren kontra. Ba daude, ordea, askok ikusi ez dituzten puntutxo batzuk: Laurenço Marques hirian, Mozambiketan, portugaldar zuriak beste manifestazio bat egin zuten. Portugal batu eta sakratuaren alde. «Guztiok portugesak gara» deihadarka.

**Der Spiegel** (= «Ispilua») aleman aldizkariak (73-VIII-13an) argazki ikaragarri batzuk dakartza, soldadu zuriak beltz baten buru ebaki bat, trophoo gisa,\* esku artean dutelarik. Antzekorik ere ikuziek gara Vietnameko gerraz.

Nik neuk, hoiako manifestazio faxistetan beti egoten diren poliziez eta funtzionarioez landa,\* gobernuaren alde eta kolonizatuaren lepotik bizitzeko gogoia duten jendeak zer gizarte mailatakoak diren galdetuko nuke. Eta goikoen aginduak holako sadismo kriminalaz betetzen dituzten soldadu portuges horik\* burjesen semeak ote direlako itauna\* egitera ausartzen naiz.

Non zegoen Wiryamu-n proletar\* nazioartekotasun dantsua\*? Non dago portuges Herriaren laguntza, kolonizatu eta zapaldu horien alde? Non agertu ditu FRELIMOK (Mozambikeren Askatasunerako Fronteak) bere lotura adiskidetsuak portugaldar ezkertiarrekin? Inon ere ez.

Ba dakigu, gauzak ez direla hain sinpleak. Ba dakigu, behoko Herria, kontzientzia politiko argirik ezaz, gobernuaren ideologia eta mythologia ofizialen irensle eta betetzailerik inkontzientea izaten dela; baina, maiz\* agertzen duen sadismo horrez gain, Mozambikeko beltz bati bost axola\* dio, bera hiltzen, portuges soldaduak kontzienteki ala inkontzienteki egiten duen. Horregatik, portugesak, oro\* har, etsaitzat hartzen dituzte, eta hilkizunak\* izaten dira

FRELIMOKo gerrilleroentzat, guztiak gobernuaren morroitzat hartuz. Zeren,\* Raimonek kantatu zuenez, ba dira, bai, hiltzen agintzen duten esku finak, baina bai eta agindu horik betetzen dituzten esku latzak ere; eta hilketan biak dira partaide.

## Galdakanoko elizetxea erre

Cervantes espainol idazlearen izen ezaguna daraman liburu berria bati ezezagun batzuek sua eman ondoren, Galdakanon bertan, gauaren iluntasunean ezkutaturik, beste morroi\* batzuek Andra Mariko elizetxeari sua eman zioten, bertan parrokiako artxiiboak eta dokumentuak orrez.

Egindako kalteagatik, noski, bataio eta ezkontze partida asko galduek izan dira; eta Galdakaotar askorentzat egitada zatar horrek ustegabeko cragozpenak ekar ditzake.

Bartzelonan ere suemaiak ugaltzen hasi dira, eta, **Fahrenheit** zeritzon\* filmean bezalaxe, liburuen kontra; han, berriz, polizia zen ofizialki erretzen zituena. Prentsa guztiak deitoratzen\* duenez, ba dirudi, ordena publikoaren indarrek ezin dutela deus\* egin halako eskuindar bortxaren kontra, orain arte bederen.

## Euskaltzaletasunaren gainbehera

Biziki iharrosi\* gaitu, zertarako uka, Imanol Laspiurrek ZERUKO ARGIAN publikatu duen artikuluak. Egia salatzea mingarria izaten da; eta halako «burjesen gauzei» jaramonik egiten ez dituzten artean, segur aski,\* artikulu hori ironiaz eta burlaz maiseaturik\* iraganen zen, irakurri (?) bazuten behintzat.

Dena dela, ogiak ogia; eta Laspiurren ustea, funtsean,\* egiazkoa da. Errealitatea horixe da: herritar kontzientziaren jaitzaren\* bat nabari\* da aspaldion; ba dago ogia eta izate ofizialearako ekantze\* bat, moldatze eroso\* bat, alienazioaren azken puntutik oso hurbil.\* Erdaldutze systematiko honetan komunikabide eta kultur bide ofizialek ukan duten cragina, begi bistan dugu; haina ez da tikiagoa izan, talde batzuen artean bederen,\* ezker izenpean agertzen diren taldekako erdaltzal batzuen jokabide zitala.

Euskaldunok jasaten\* dugun moduko egoeren karakteristikarik latzena, hain zuzen, hauxe da: erosotasuna. Korrante ofizial\* eta deseuskalduntzaileari egunero fronte egiten dionak, bere burua irabazten du eta nortasun sendo bat lortzen, baina eguneroko kontraesan eta jazargo\* guztiak bere lepoan bizi bizitan eramatearen truke, ipuineko Sisyphok bezala. Erosokeriara moldatua eta amore emana, herritasuna galdu arren, hurrupatu\* bat izan arren, ez du jadanik\* sufritzen, aise\* bizi daiteke; eta hauxe da askoren gaurko tentazio larria, kontzientzia argi batek ozik beste ezerk konponduko ez diguna.

## Gizontasuna nabari denean ere

GOIZ-ARGI aldizkariak, abuztuaren 15eko zenbakian artikulu interesgarri bat eskaini digu, **Peruk** izenpeturik; noski, **Berreun'en batzarra?** deritzonaz ari gara.

Guk geuk, joaten ez garen batzarreetan zer gertatzen den jakiteko txibaturik\* ez dugunez gero, Loiolako bilera horren berri alde batetik bakarrik genuen; eta, gure kritiziz, hura\* triunfalista xamarra zen.

Egia da, ordea, ba genedukala susmoa, hainbeste «idazle»ren bilkuretan gertatzen denez, gehiena bluff gisako\* zerbait ez ote zen. Hondarrabiako behinolako\* batzarre famatuan bezala. Hartaz Azkuek hauxe esaten zuen: «Bertara nolako «idazleak» joateko ziren, aurretik jakin izan banu, neronek neurc etxeko atezaintsa\* ere eramango nukeen».

GOIZ-ARGIn, lehengo zenbaki batzuetan, alderdi bateko eritziak agertuak ziren. Oraingoa, aldiz,\* beste alderdi batekoak. Irakurleak, bitzuk irakurri eta, bileraren uste objektiboago bat oduki dezake orain. Horri esaten zaio, hain zuzen ere, gizontasuna eta demokrazia. Exenplu ona benetan, aniztasunaz,\* GOIZ-ARGIk eman diguna.

ARMENDARITZ

balute, balebe  
daude, dagoz  
dezake, daike  
die deutse  
diegu, deutsegu  
diote, deutsec  
digu, deusku  
digute, deuskue  
dio, deutso  
diogu, deusagu  
diote, deutso

ditzake, daikez  
dizkigu, deuskuz  
genedukan (geneukan), geunkan  
zaie, jake  
zaigu, jaku  
zaio, jako  
zaizkio, jakoz  
zaizkie, jakez  
zioten, outsoen  
zitezkeen, eitekezan



# Teatroa Frantzian

## TEATRO SASOINA

Uda heldu da, eta Parisen teatro sasoina azkenetara doa: «la saison», «la saison». Gauza berri guti eskaini izan da teatroaren supermerkatu honetan, zer ikusirik aski eskaini bazaigu ere.

Teatro anglo-saxoinaren inodak indarra galtzen duela ikusten da. Problematika sakonetako teatroa urritu egin da, eta hiri bazterretara aldatu da, foburgoetara, hauzotara. Ez dago gehiago modan, eta zentrotik alde egin behar izan du. Dama finek eta sozieta-teko jaun gorenek ez dute gehiago nekatu nahi, intelektual itxurak egitearren teatro problematikoa bisitatuz. Eta orain berriro ere «arte» dastatu dute, arte garbia. Bake bakean, kontzientziak larritu gabe.

Hiritar arruntak ez zion lehen ere gusturik hartzen teatro problematikoari: moda anglo-saxoin eta amerikano ezkeriar itsusi horri. Paristar arruntak, kultur manera egoki batetan dibertitzea besterik ez zuen teatroan bilatzen. Sorkura oneko paristarrari dagokion moduan: ohore pixka bateko paristarrak noizean behin teatroan agertu behar baitu, munduko naziorik kulturalena Frantzia dela ahantz ez dadin.

Beraz, teatro problematikoa bazterreratu egin da, eta «kultura» ostera ere indartu. Teatro arinak eta kabaretak indarra hartu dute, eta Poiret-Serrault komedienteentzat sasoin on bat izan da. Parise berriz ere ederki dibertitzen da teatroan.

Comédie Française-an, Molière-ren urtea pena guti eta gloria gutiagorekin iragan da. J. P. Roussillon-ek, «Emazteen eskola»-ren eskenifikazioaz, hautsak hartu ditu zerbait, urtea sentsaziorik batera gabe akaba ez dadin. Eta emazte emantzipatuak nahiz emazte emantzipatuen maitaleak edo maitale nahiak kontentatuz, publiko ugaria aseguratzen jakin du, aire moderno snob pittin bat «kritika sozial» pixka batez nahasiz. Arrakasta handia, teatroak erdi hutsik gelditzen ziren sasoin honetan.

Horixe izan da teatro sasoinaren gata eta piperra, moda berriak eskatzen zenez: sexu apur bat, kritika sozial tanta batzuk, literatura klasiko zertxobait, sorpresaren batzuk dosi egokitan, ezerezetan nahasturik, eta maina askoz saldua. Kultura guztiz neofrantsesa.

Palais de Chaillot-en, Jack Lang kudeatzaileak Haurren Teatroa esperimentatu du: Haurren Teatro Nazionala, bestelako teatroek gustura hartuko lituzketen subentzio galantekin. Vincennes-eko Jauregiaren larrainean zabaldu ziren zirkuloak —sarrera dohainik, pagatu gabe— haurrak berebiziko artista agertu dira: jolasetan. Mikael Meschke sueziarraren marioneta teatroan, harrera ona kausitu du Saint-Exupéry-ren «Printze Tipia»-k. Beti atsegina Printze Tipia, haundi nahiz tipientzat. Adinekoentzat batez ere, haurtzaro amoni bat gorde dugula sinestertzeko geure buruoi.

Baina arrakasta haundiena «Atelier»-ek eduki du: haurrek beren gogara eta gustura beren buruak pintatu, kostumatuz eta jokatu baitute hemen. Zer dea artea, haurren pozkarioa arte ez bada? Gainera, haurrak izan dira. Parisen sasoin honetan inspirazio librerik agertu duten ia bakarrak.

Entzuten denez, Vincennes-eko larrainean gerorako programa pedagogikoak probatzen ari dira. Geroago haurrek oskoletan hainbeste libertaterik edukiko ote dute?

## TEATRO PRIBATUAK

Amaitzera doan sasoin honetan ere, garbi agertu da teatro pribatuen betiko miseria ekonomikoa. Batzuen agonia luzea, bukatu da: Mathurins, Variétés, Edouard VII eta La Potinière-k beren atea betiko hertsiko dituzte sasoin honekin batera, hurrengoan zine edo bulego etxe bezala irekitzeko. Goian beude. Eta Marigny, Athénée de Paris eta Théâtre Moderne ORTF-eren eskuetara pasatuko dira: odola eta bizitza aldatzen dituen bihotz xertaketa dugu hauxe, zinez. Beude behean, eta ez zeruetako erreinu gaultistan.

Teatro pribatuari ez zaio otorkizunik ikusten, eta teatro ofizialaren otorkizuna aspaldi ikusita dago.

Teatroa, diru asko kostatzen den kultur saila da. Zaltetarako ez bada, subentzioak behar dira. Eta subentziorik ez bada, zaila da bizitzea. Kultura ere diruak jasotzen du: kreazioa ez bada, kontsumoa bai. Eta kontsumoak erraz kondizionatzen du kreazioa: ez erabat, eta ez zuzen zuzen, baina bai zeharka eta bai neurri handitan ere. Zeinentzakerik gabeko arte-kreazioa gaitza da: «kontsumi» dezan norbaitik gabekoa, alegia. (Zergatik ematen zaio kontsumo hitzari beti esannahi txarra?). Gizarteak artea eskatzen eta ugari kontsumitzen duenean, aldiz, kreazioa ere biziki indartzen da.

(Artearen eta ekonomiaren arteko zerikusiak zientzia handiekin eztabaidatzerakoan, honelako perogruladak ez lirakeke ahanztu behar).

Arto-sailen batzuk subentziorik eskerrak bakarrik bizi litezke: orkestak, eta abar. Eta berdin teatroa ere.

Estatistikek erakusten dutenez, Parisen teatroa doazentatik chuneko 35 (% 35) bakarrik joaten dira teatro pribatuetara. Hainbeste ikuslariarekin ez dago aberasterik, noski. Eta bizi ere, zorretan bakarrik bizi liteke. Teatro pribatuak, oro har, Frantzian dadukan zorra, zazpi milioi franko edo libera berritara igotzen da. Kritikoek zuzen juzgatzen badute, aurrerantzean ere goitik behera joango da teatro pribatuen ekonomia, teatroak. Estatuaren teatro eta teatro pribatutan bereizita segitzen duen artean: ia subentzio guztiak Estatuaren teatroak eskuratzen ditu, eta teatro pribatuak bere gain hartu behar ditu arrisku eta gastu guztiak. Pobreak zertarako lagun? Hil dadila, eta proberik ez da geldituko: orduan denak aberats.

Astiro astiro, eta berezko prozesu guztiz naturalez, teatroak nazionalizatzen ari da Frantzia: «sozializatzen». Teatro pribatuaren bizi ezinez.

Ehun milioi franko edo liberatako presupostua daduka Frantziak teatroaren alde jarrita urteko. Horetako 900 mila libera bakarrik tokatu zaie sasoin honetan teatro pribatuei (ehuneko bat baino gutiago): ia dena première edo estreinuen laguntasunetarako. Diru asko da, Estatu frantsesak hori dena Lapurdin edo Zuberoan ikastolak sortzeko eman izan balu. Baina diru guti da, teatro pribatu frantsesa bizi ahal izateko. (Kultura frantsesa —munduko kulturarik ederrena, noski!— garestia da). Hala ere, autore dramatiko frantses gehienek beren obrak teatro pribatuetan estreinatzen dituzte. Garbi dago, Estatu frantsesak espektakulua subentzionatzen duela, eta ez kreazio dramatikoa. Itxura eta agiria pagatzen dituela. Frantziak Frantzia pagatzen du.

Kultur elkartek edo «Centres Dramatiques» direlako ofizialtasunik ez duten teatro pribatuei, burokrata ezegun eta alditsu batek orabakitzen du zenbat laguntza eman. Burokrataren gustukoa ez bada, zorretan ito dadila, eta kitto. Horrela dabil Ariane Mnouchkine-ren «Théâtre du Soleil» izenekoa, inspirazio handia erakutsi duen teatroa, kooperatiba moduan antolatua, lankide guztientzat irabazi berdinekin (1.500 libera bakoitzak), eta herriarentzako teatro bizi egiten zuena, herriarentzako moduko sar-prezioekin: zorrak kitatzeko laguntzen ez bazaie, sasoin honen azkenean taldeak sakabanatu egin beharko du. «Théâtre du Soleil» gaixoarentzat hilbehera da.



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriak, Itxas tresnak, Igentekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribarte, 15 BILBO - 1



Estatistiketan ikusten da ez, chun paristarretatik 39 gutienez hila-  
labetean behin zinemara joan da; baina ehuneko 5 bakarrik teat-  
rora. Eta ehuneko 3 paristar ez da bere bizi guztian sekula teatrorra  
joaten.

Areago,\* nor doa Parisen teatrorra? Ondo kokatuak.\* Ez jende  
tipia. Boulevard teatroetan itzuli bat ematen duenak eta jendeari  
begiratzen dionak, berehalaxe ikusiko du, ikusliar gehinenak enple-  
gatuena eta merkatarien maila sozialetakoak direla. Jantzkeran antze-  
maten zaie. Eta beren kortesia afektatuan: beren modu onak «lu-  
zitzen» ari direla nabari\* zaie. Hauk\* dira, izan ere, teatroen ingu-  
ruan bizi den jendea.

Goreneko jende aristokratikoen teatroaz ez dago ezer esan be-  
harrik: moda erakusketa hauetan ikusliarrek egiten dute teatrorra,  
eta kostumatu\* ere ikusliarrek egiten dira.

Ikusliarrek hauk badira, hauen gustuak gobernatzeko du teatrorra.  
Zirkulo bizioso batetan kateatuta gelditzen da teatrorra, Zirkulo ho-  
rretatik atera ahal izango luketen subentzioak, ordea,\* ez dira inon-  
dik ailegatzen. Bizi ezin den teatrorra listatuen eskuetara pasatzen  
da: Estatuak kultura zaindu behar baitu...! Eta Estatuarentzat gastu  
eta arrisku gutiago du Corneille edo Molière-ren eskenifikazio bat  
subentzionatzeak, esperimentu berririko bat subentzionatzeak baino.  
Beraz, Estatu politikoa zeharo kontserbakor bati atxikitzen\* zaio tea-  
tro kontuan: ikusliarren gustuaren zerbitzari leial behurtzen da.

Denok dakigu, paristarrak teatrozale biziak omen\* direla. Izan  
omen zirela, hobeto esateko. Bere burua ezertzat dadukan parista-  
rrak, firmoki sinestu behar du, kulturaren burua Frantzia dela eta  
Frantziarena Parise; eta, beraz, Parisen, teatrorra ere, bere burua  
ezertzat dadukan kristau ororen\* obligazio bat da.

Zergatik ez da, ba,\* jadanik\* teatroan heri xeherik ikusten?  
Egiten den teatrorra interesatzen ez zaiolako, lehenik. Eta, gero, es-  
pezialki ere teatrorra eta herria erbidituta, apartatuta daudelako. Pari-  
seko teatroak, XIX. mendeko erlikia antzeakoak hihurtzen ari dira.  
Orduan teatroak, jende tipia, herria, bizi zèn hauzoetan zueden.  
Jendearen ordian, eta, nolabait, lehenago elizak izandakoa ziren:  
jendea biltzen zuten. Baina zentroa husten ari da: bizitokiak kanpo  
aldera, hir: bazterretara botatzen dituzten bulego,\* supermerkatu,  
banku eta dendak ari dira zentroa okupatzen. Aberatsenak eta po-  
breenak zentrotik kanpora doaz: erdiko mailakoak gelditzen dira. Ho-  
rretara,\* ba, aspaldiko teatroak ez daude jendearen ordian, herriak  
inguratuta. Lehenago teatroak betetzen zituen jende tipia, telebis-  
taren aurrean esertzen\* da gaur: merkeago eta atseginoago da. Eta  
hori da, teatro pribatuen ezezik,\* erabat\* teatroaren krisiaren beste  
arrazoi bat.

LAZKANO MENDIZABAL

beude, **begoz**  
daude, **dagoz**  
dezan, **daian**  
dio, **deutso**  
lukete, **leukec**  
zaie, **jake**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**  
zion, **eutson**

**O H A R R A**

Aurreko zenbaki batzuetan, inprimatzaileen ustegabeko  
faltaz, halako aldrebeskeria eta artikulua osoen berrargitara-  
tzeak gertatu dira, ohizko ortografi okerrez gainera.

Irakurleak, noski, ba daki nolako eragozpen eta oztopoak  
dituzten euskal aldizkariak moldiztegiatan. Nolabait hori zu-  
zendu nahirik, ale honetan, lehenago agertu behar zukeen  
artikulu bat eta lehen gaizki konposaturiko beste bat berriro  
argitaratzen ditugu.

ANAITASUNA



**Zuzenbidea:** JAKIN, Arantzazu. Oinati. Gipuzkoa.

**Oharra:** Adieraz gurutze batekin ondoko hauetatik  
nahi dituzun liburuak.

<b>JAKIN sorta</b>	pta.
<input type="checkbox"/> 1. Ipar Euskal Herria (agortua)	
<input type="checkbox"/> 2. Salvatore Mitxelena (agortua)	
<input type="checkbox"/> 3. Rikardo Arregi ... ..	100
<input type="checkbox"/> 4. Kultura eta Fedea ... ..	100
<input type="checkbox"/> 5. Erlijioa hauzipean ... ..	100
<input type="checkbox"/> 6. Gure Ikastola ... ..	150
<input type="checkbox"/> 7. Koperatibak ... ..	110
<input type="checkbox"/> 8. Euskal Herriaren atarian (irteteko) ...	130

<b>JAKIN liburu sorta</b>	pta.
<input type="checkbox"/> 1. Euskal Herriaren Historia ... ..	130
F. Zabala	
<input type="checkbox"/> 2. Mintzaira, aurpegia: Gizon! ... ..	120
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 3. Iraultzaren hildotik ... ..	100
J. Intxausti	
<input type="checkbox"/> 4. Zezenak Errepublikan ... ..	100
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 5. Kolakowski ... ..	130
J. Arregui, J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 6. Herriraren lekuko ... ..	150
R. Arregi	
<input type="checkbox"/> 7. Axular, Mendea, gizona, liburua ... ..	120
L. Villasante	
<input type="checkbox"/> 8. Fedearen dinamika ... ..	120
P. Tillich	
<input type="checkbox"/> 9. Kultura proletarioaz ... ..	130
J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 10. Euskaldunen ipuin harrigarriak ... ..	130
M. Etxeberria	
<input type="checkbox"/> 11. Ekaitza ... ..	120
J. M. Satrustegi	
<input type="checkbox"/> 12. Iraultzaz ... ..	130
J. M. Torrealday	

**Ikus, ikas, ekin JAKIN liburuekin!**

Suskritoreentzat % 30, %40 eta % 50 merkeago!	
Izena .....	
Kalea .....	Tel. ....
Herria .....	Probintzia .....
<input type="checkbox"/> 1.000 pta. aurreratuz ordainduko dut.	
<input type="checkbox"/> Liburu bakoitza ordainduko dut, datozen neurrian.	



# DEUSTUKO EUSKAL IKASTAROA

Jesuiten Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiak\* antolatuturik, eta Euskaltzaindiaren Bizkaiko Alfabetatze Batzordekoak\* irakasle direla, Deustuko euskal ikastaroak eman du aurtengo fruitua.

Ikastaro honi buruz, ene ustez aipagarriena dena azaltzera noa.

## NOLAKO JENDEA

Udako ikastaro honetan, hilabeteko ihardunaldi bi eman dira: bata uztailean\* eta bestea abuztuan.

a) **Uztaila.** Hilabete honetan, egun osoan ari izan gara. Goizean, 9etatik 12,30 arte. Arratsaldean, 4etatik 7ak arte.

Goizeko ikastaldian talde bi izan dira: lehen eta bigarren mailakoak. Guztitara 21 ikasle eta irakasle bi. Ikasleen adina 14 urtetatik 33 urtetararte. Haien bizibideak: hamahiru estudiante, hiru maisu, bi langile, hiru erlijioso eta apaiz bat. Matrikula, 4.000 pezeta.

Arratsaldean bost talde izan ditugu. Lehen eta bigarren mailakoak hiru, bat hirugarrenkoa, eta bestea Alfabetatze taldea. Guztitara 48 ikasle, 18 urtetatik 50 artekoak. Haien bizibideak: hamahiru estudiante, zazpi maisu, bi serora, eta beste zenbait (peritu, inginadore...) Matrikula, 3.000 pezeta.

Metodoari dagokionez, lehen eta bigarren mailan «Euskalduntzen» erabili dugu eta liburuxka horretatik ateratako magnetofono zintak. Horretaz gainera, hirugarren mailan. Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak prestatuturiko eskuizkribuak, ariketak\*... Alfabetatzeko mailan, irakasleek egindako ikasgaiak, euskal aldizkariak, liburuak eta beste zenbait irakurgai. Noizean behin euskal jakintsu batzuen hizaldia.

b) **Abuztua.** Hilabete honetan, arratsaldean bakarrik eman dugu: 4etatik 8ak arte. Irakasleak bost izan dira.

Lehen mailan: 14 ikasle, 19 urtetatik 47 artekoak. Haietarik bi langile, zortzi estudiante, serora bat eta hiru maisu.

Bigarren mailan: bi taldetan, 25 ikasle, 19 urtetatik 37 artekoak. Haietarik 11 langile, 9 estudiante eta 5 maisu.

Hirugarren mailan: talde bakarra, 8 ikasle, 17 urtetatik 42 artekoak. Haietarik 4 maisu, 3 estudiante eta langile bat.

Alfabetatze mailan: talde bakarra, 13 ikasle, 13 urtetatik 37 artekoak. Haietarik 6 langile, 3 estudiante eta 4 maisu.

Matrikula, 3.000 pezeta.

## ERITZIAK

### Ikasleenak:

- honelako ikastaro batetan, urte osoan baino probetxu gehiago ateratzen dugu.
- ordu asko izanik, gogor eta aldatz gora egiten zaigu, azkenean pozik geratu arren.
- premiakoa ikusten dugu, ikastaroak bere inguruan sortzen duen euskal giroa.
- adoretu eta helburu finkatu batez etorri ezik, pot egin dezakegu ikastaroan zehar edo amaitzerakoan.

### Irakasleenak:

- irakasleek eskolatik kanpora egiten duten lana edo egin ahal dutena, labur geratzen zaigu, honetariko ikastaroen eskarietarako.
- ordu berdinak eman arren, irakasleek fruitu desberdinak eskuratu dituzte. Ikasleen sasi-eskolek\* eta ahalegin ezak zailtzan\* jartzen dute irakaslea bera ere, eta irakasleak atzeraturik geratzen dira.

— gainera, eskola emailea, hau ikusi ondoren, zeharo desanimatua gerta daiteke; baina, askotan, ez da harritzeko gauza.

— material aldetik, hau da, pedagogi tresnen arloan, gauza asko falta dira irakasleentzat: gramatika, liburu berezi eta testu aukeratuak. Honela, irakasleak bi eginkizun bete behar ditu: irakaslearena eta liburu egilearena. Bestalde, hiztegi arloan, ez dugu lan pedagogikorik aurkitzen, eta euskara batuz gutlago oraindik.

— premia hauen aurrean, Alfabetatze Batzordeak zerean dihardu: orain arte argitaratu diren «Euskalduntzen» metodoaren bi mailak eta beste gai batzuk erabiliz, magnetofono zintak atontzen,\* «Euskalduntzen» hirugarrena eta Alfabetatze mailarako eskuizkribu berriak prestatzen, eta beste zenbait irakasle berri lantzen.

## IKASTARO ONDOREN ZER?

Ikastaro ondoren, euskara batua, euskalkiak non erabil, nola praktika? Euskara ikasi eta gero, erdaraz mintza? Nola lor, gure ikastaroko lan guztiak erdarazko itsasoan oz itotzea?

Nork bere pentsakizunak azaltzeko aina\* eta euskara landua ulertzeko beste\* ikasten da ikastaro hauetan. Guk, berriz, bizitzarako tresna bezala nahi dugu euskara. Honen aurrean zer egin? Problema politikoa den bezalakoa den artean, ikastaroak nekez izan litezke oso eta biribil.

Dena dela, nola uka, hemen ditugula idazle eta irakurle berriak, euskaldun askoren zuzpertzailleak,\* eta gure artean dagoen beti erdaraz berba egiteko tirria\* berengandik botako dutenak?

RIKARDO BELAKO

## BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Erakunde honek,  
Bilbon eta Probintzia osoan,  
gizarte premia guztietarako  
laguntzarik zabalena ematen dihardu,  
eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zeure dirua gordetzeko:

## Caja de Ahorros Vizcaina

Bulego nagusia:

Plaza de España, Bilbo  
Tel. 243600 - 211290

Hiriburuan 17 agentzia

Probintziako herri nagusietan  
75 ordezkari

Madrileko agentzia:

I.C.C.A. Alcalá, 27  
Tel. 2214995



# KIRIKINOA (14)

Irailaren\* lehen egunak dira. Enekok bere oporretako azken egunak Orozkon ematen ditu, aitonarenean. Zerua gris dago, irrikitu\* urdin batzuekin. Uda hau, izan ere, ez da izan oso atsegina, aurten euria, ekaitzak eta sargoria jaun eta jabe izan dira eta. Dana dala, ba dirudi, udazkena, bere urre kolore gorrixka epelaz, egun hobe batzuen aierua\* ematen hasia dala. Hala biz\*.

Mutikoa etxeko txakurtxoagaz inguruetatik osteratxo\* bat egitera joan da. **Jandalo**, txakurra, oso bizkorra da, izenak besterik dinoan arren; eta, bidean zehar, muturra lurreko zuloetan sarri\* sartzen dau, sagu, sator eta honelakoan usainera. Enekok ez deutso inoiz kasurik egiten, eta beti agirika\* ibiltzen da beragaz, oso atzeraturik gelditzen jako eta. Gaur, berriz, **Jandalo** jo eta ke ibili da muna\* baten ondoan, muturra sasiarte batetan sartuz, erpeka ekinez,\* noizik behin txilio\* batzuk jaurtikitzen zituala. Txakurra temoso egoela eta, Enekok makila batez sasiak alderatu ditu eta bertan zulo bat aurkitu dau, nahiko haundia gainera. Txakurrak, mutikoaren interesa ikusita, ekin eta ekin ihardun dau, eta azkenean, zuloa handiturik, horbel\* artean gordeta zera atera dau handixek: kirikino bat.

Pozaren pozez, arantze bola ha\* bedar batzuen gainera ezarriz, Enekok piztiattoa esku artean hartu eta ari-  
neketan\* etxera eroan\* dau, osaba Martini erakusteko. Berau, kirikinoa aska lehor batetan utzierazi ondoren, mutikoaren ondoan jesarri da eta haren bizitza esplikatzeko hasi jako.

—Kirikinoa, satorra eta satitsuaren\* antzera, intsektujale bat da; baina fruitu ondo helduak ere jaten ditu, topatuz gero behintzat. Harrak, bareak eta barraskiloak\* oso gogoko ditu.

—Txominek, hauzokoak, sagardietara joan eta lurrean datzazan\* sagarren gainean buelta eginik, bere habiara eroaten dituala kontatzen dau, ba.\*

—Ez da hori egia baina, baserritar askok holan uste izan arren, Kirikinoaren arantzeak bizkarreko ile gogor batzuk besterik ez dira, piztiak bere burua otso,\* azeri, lepori\* eta txakurrengandik jagoteko\* erabiltzen dituanak, burua hanka artean gordez eta bola bat eginaz. Ez dira, beraz, egokiak, fruituak bertan erodateko. Sagar-  
rak, gainera, ez jakoz asko gustatzen; madariak, okar-  
nak,\* muxikak\* eta pikuk atseginago ditu. Dana dala, Nafarroa aldean eta ipar euskaldunek, sagarzalea dalakoan edo, **sagarroia** deitzen dabe, berau izen egokia ez bada ere.

—Zer beste izenik dauka euskaraz?

—Bizkaian **kirikinoa**, **kirikolatza** eta **kirikiolatza**, Gipuzkoan, berriz, **trikua**, eta ekialdeko\* euskaldunen artean **sagarroia**. Nik neuk, batasunerako egokia dalakoan, **kirikino** hobetsiko\* neuke, Mañariko idazle famatuaren omenez.

—Eta non bizi da kirikinoa?



—Euskal Herri osoan, baso eta oihanetan,\* bai eta baserri inguruetan ere.

—Eta itsasoan ere ez al dago beste holako kirikino-  
rik, osaba?

—Ez, horreek ez dira klase berekoak. Zuk dinozuz-  
nak haitzei eutsita bizi izaten dira, eta euskaraz **itsas-  
lakatzak** deitzen dira, gaztainenak lakoxeak dira eta.

—Zenbat kume egiten ditu kirikinoak?

—Bost edo sei, eta udaren amaieran jaiotzen dira, arantze zuri bigun batzuekin.

—Guztiak honelako ttikiak izaten dira?

—Ba dira handiagoak, 28 zentimetro ingurukoak. Gi-  
zon batzuek, jateko harrapatzen ditue; baina, baserrian  
koko kaltegarriak janaz egiten dituen mesedeengatik,  
errespetatu beharko geunkez.

—Zelan deitzen dira erdaraz?

—Españolez **erizo** eta frantsesez **hérisson**; eta zien-  
tzi izena, berriz, **Erinaceus europaeus** dauka.

—Basora eroango al dogu berriro, osaba?

—Bai, goazen. Bizi dadila bertan.

TRAUKO

dabe, **dute**  
dau, **du**  
deutso, **dio**  
dino, **dio**  
dinozuz, **esaten dituzu**

egoen, **zegoen**  
geunkez, **genituzke**  
jako, **zaio**  
jakoz, **zaizkio**



# «MATTEI AFERA»

1962.eko urriaren 27an, Enrico Matteik heriotzea aurkitu zuen giro guztiz berezi batetan. Milaneko aireportuan pausatu baino minutu bat lehenago, haren errektorea Bascapé-n leherturik erortzen da. Ofizialki, heriotzearen arrazoina «ezbehar» bat izan da. Baina nehorik ez du crabat baztertzen atentatu baten hipotesia.

Enrico Mattei gerra ondoko pertsonaia nagusienetak bat zen Italian.

Familia pobre baten seme, Matteik berak aitortuko du, «self-made man» bat dela, hau da, lan propioaz gailurrera iritxi den gizon bat. Gerra denboran partisano buruzagi bezala dabil, eta gero A.E.I.P.ren zuzendari izendatuko dute (A.E.I.P. hau petrolio monopolio bat da, E.N.I.ren aitzindari eta ama).

Garai honetan Afrikak iratzartze prozesu bat darama, eta Ipar Amerikaren zapalketaz ohartzen da, batez ere petrolio arazoan. Mattei Iran, Egipto, Arabia, Tunisia, Libia... eta besterekin harremanetan jarriko da. Matteiren eskaintzez, «zazpi ahizpek» ezarritako joko baldintzak zeharo apurturik gertatzen dira. Imperialist\* interesen aurka jasoko du burua. Kongresuan eginiko mintzaldiaz garbi erakusten duenez.

Hau guztiaugatik, zenbaitek atentatua ikusten du «ezbeharraren» itzalean. De Mauro kazetariak bere kasa hasiko ditu azterketak, eta halako batez bahitua izanen da.

Hauce dugu, hitz laburrez, «Mattei afera» filmean Francesco Rossik ikus crazten digun istorioa. Zinema berri baten urratzaila —errealismo dialektikoarena, hain zuzen— Rossi egia-aren atzetik dabil etengabe, «Salvatore Giuliano» filmean eta «Mattei afera» beronetan nabaritzen denez. («Le mani sulla città» eta «Uomini contra» oraindik ez dute gure muga iragan\*). Rossik, inkesta-zinema bateri bidez, mitoa («Salvatore Giuliano») edo eta misterioan

(«Mattei afera») bildurik eta ezkutaturik dagoen egia soziologikoan barna garamatza. Rossik ez du ondoriorik ateratzen. Haren lana, mafia berri bati buruzko ausnarketa bat da: petrolio monopolioari buruzkoa, alegia.

Italian zinema berriaren hildo berean dator Rossiren hau ere: enigma-erakunde-zinema bat, gizartearen barnean irakiten dagoen hainbat arazoren kritika zorrotza egiten duena. Rossik berak dio: «Zi-negile batek bere giro eta zirkunstantzia ororen lekuko izan behar du, eta hari buruzko eztabaidarako bide batzuen urratzaila. Zerbait adierazi behar du, bai; baina, bide batez, neuri eta besteri lagungarri bihur dakigukeen zerbait —bizitze konkretuaren inguruak— konpreni crazia».

Zinema berri honen adierazgarri bezala: «Encuesta sobre un ciudadano fuera de toda sospecha» eta «La classe operaia va in paradiso», Elio Petri-renak; «Roma», Fellini-rena; «El jardín de los Finzi-Contini», V. de Sica-rena; «Confesiones de un comisario», Damiani-rena; «Hay que quemar un hombre», Orsini-rena; Bertolucci-renak, e.a.

Eskerrak muga aldean bizi garela, eta halako filmeak ikusteko paradirik ba dugula. Noizko, filme hauk, egiazko zinema, hemen?

Azkenik, filme hau ezin hobeto taxutua dugu, teknika hutsari dagokionez. Elkar hizketan tesi politiko-sozial batetan finkatua dugu, haren giza alderdia ahantzi gabe. Gian-Maria Volonte-ren lana ere aipagarria da benetan, bere pertsonaia bizi duelako, eta ez interpretatu bakarrik.

Interes handiko filmak, benetan ikusgarria.

XABIER PORTU

dakiguke. daitekigu

digu. deusku



**Banku batetik espero duzun baino askoz gehiago eskaintzen dizugu.**

**Hala ere, oraindik gutti dela uste dugu.**

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banku barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskatala espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartearen emakumeak lortu duen aurreramenak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta mirespena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi digu, eta geure laguntza eskaini.



Cheques Regalo



Cheques de Viajero



Cuentas Corrientes



Domiciliación de Recibos



Libretas de Ahorro



Atención a la Mujer



Giros y Transferencias



Operaciones de Crédito



Banco de la Mujer

**Banco de Bilbao** Banku honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu



Axola baserriko ugazabak\* anuntzio hauxe jarri zuen egunkari batetan:

—Geure ukuiluan\* abere larregi\* dadukagu, eta hauek salduko genituzke: Mando-bat, txerri bi eta bizikleta bat.

Eta nik diot: Bizikleta zer ganadu klase ote da?



Txotxo Kirten gureak behi bi eta gurdia daduzka. Eta uztartu eta azpigarri bila joan da basora. Baina, lanerako berotto ere ba zegoela eta, oraino goiz xamar ere ba zela eta, pago tantaipen etzan eta lo gozotan ordu bi inguru iragan\* ditu. Itzarri denean, bere aurrean gurdia baino ez daduka. Larregi kezkatu ez nahigabetu barik,\* pentsatzen jarri eta bere kabutan\* zera dio:

—«Ni, Txotxo Kirten nauk edo ez nauk. Txotxo Kirten banaiz, behi bi ohostu\* zikkidaate, eta galdu zitiat; baina Txotxo Kirten ez banaiz, gurdi bat irabazi ziat».

Txotxo, kirten eta erdi ere ba haiz hi, ikusten dugunez.

Ordurik hona, urte batzuk iragan dira; baina, zertzela-dá\* polita da eta, ipin dezagun:

Bilboko aldirikari batetan argazki polit bat ikusi nuen. Bertan elizmutil bi, monakillo bi agertzen ziren, organoan eserita\*; eta bietarik nagusittoenak esaten zion txikianari:

—Hara, tekla zuriok bataioetarako dituk; eta beltzok, aldiz, enterruetarako

BELU



Emakume, gizonetzko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonetzkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak

**HURI ZAHARRA**

“Casco Viejo”

**BILBO**



GURUTZEGRAMA (25)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2					█				█	█
3					█					█
4			█				█			
5							█		█	
6		█								
7	█		█	█						
8			█							█
9							█	█		
10						█				


**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Maitatua izatea mereri duena.—2. Edaria. Garaua, bihia.—3. Izenordea (pluralen). Deus (alderantziz).—4. Kontsonante baten izena (alderantziz). Barik (alderantziz). Ukan aditzaren forma.—5. Ukan aditzaren toketazko forma, alderantziz (Haurrak neronek ikusi... eskolan). Kontsonantea. Kontsonantea.—6. Kontsonantea. Aspaldion hegazkin edo airekoeg egiten den bidegabekeria.—7. Bokala. Banan banan (alderantziz).—8. Euskal Herriko xori beltza (alderantziz eta errepikatuz). Gehiago (alderantziz).—9. Irratian eta telebistan entzuten dugu. Letra baten izena (alderantziz).—10. Zainetan dugu (alderantziz eta artikularekin). Kanpo aldetik dagoena (alderantziz).

**Goitik behera:** 1. Ardoa egiteko egokia. Santimamiñeko kobatik hurbil dagoen hauzotegittoa.—2. Azter, iker. Laburra ez dena (alderantziz).—3. Aberea. Zenbakia (alderantziz). Begirada.—4. Adiskidetasuna adierazten duen berbeta modua. Esan aditzaren forma (alderantziz).—5. Bokala. Hurrengo egunerako.—6. Nongoa zen B. Etxapare?—7. Lo egiteko lekua (alderantziz). Zenbakia (alderantziz). Kontsonantea.—8. Galdegilea (alderantziz). Hezurraren muina (artikularekin). Bokala.—9. Kontsonantea. Letra baten izena (alderantziz). Gaindi (alderantziz).—10. Bokala. Bat egin (alderantziz). Baldintzetan erabiltzen den aditz aurrizkia.

**Goitik behera:** 1. Mahats. Oma.—2. Araka. «araka dezagun geure kontzientzia». Luze.—3. Idi. Bi So («so bategi ikusi dut»).—4. Toketa. Dio.—5. A. Biharko.—6. (Donibane) Garazikoa.—7. Gela. Bat. L.—8. Zer. Guna. A.—9. R. De. Zehar (Euskal Herrian gaindi = Euskal Herrian zehar).—10. I. Batu. Ba («etxera badator, eman ezalozu liburu hau»).

**AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Maitaga-ri.—2. Ardo. Ale.—3. Haik («haik etorri dira»). Ezer.—4. Ka. Gabe. Du.—5. Zitat. G. T.—6. S. Bahitura.—7. E. Banaka.—8. Zozo. Haboro («haboro itozten du ardoak, urak baino»).—9. Musika. Be.—10. Odola. Azal.

HIEROGLYPHIKOA



Autobidea bertan amaitzen da

EUSKAL SALDA

S	E	R	A	P	A	X	T	E	H
R	O	I	H	E	N	A	R	T	E
O	I	E	O	A	S	O	I	T	S
X	G	L	A	R	R	A	M	E	N
E	A	N	E	L	E	X	T	I	M
U	R	X	I	K	U	R	A	L	T
K	I	T	U	A	N	P	I	O	N
Z	B	S	A	L	M	O	R	E	G
A	A	G	I	R	A	R	E	S	T
V	I	L	A	N	A	R	A	N	I

Goiko koadro horretan zazpi euskaldun ospetsuren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko dituzu? Kontuan hartu behar duzu eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



И44и

HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Behobia

EUSKAL SALDAREN ERANTZUNAK:

Mitxelena.

Etxapare, Garbail, Axular, Oihenarte, Arana, Azkue,



# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABIADA, abiadea, la velocidad.  
ADIN, edade.  
ADINA, aina, beste, bezainbat.  
ADOS, conforme, de acuerdo.  
AFERA, caso, asunto, affaire.  
AGIAN, beharbada, nonbait.  
AGIRIKA, repudiendo, réprimandeur.  
AHANTZ, olvidar. (AHANTZI, ahanztu, ahaztu, olvidado).  
AHANTZI, ahanztu, ahaztu.  
AHERU, señal, presagio.  
AINA, adina, beste, bezainbat.  
AIPATU, aipatutako, aipaturikako, aipaturiko.  
AIPU, cita citation.  
AISE, cómodamente, a sus anchas.  
AITZINDARI, precursor.  
AITZINEAN, aurrean.  
AITZITIK, al contrario.  
AKASNO, akats tipiko, faltita.  
ALDITSU, caprichoso.  
ALDIZ, berriz.  
ALEGIA, a saber, es decir, esto es.  
ALUKERIA, bidégabekeria.  
ALTOR, tesoro.  
AMIRI, poquitin.  
ANITZ, asko.  
ANIZTASUN, pluralidad, pluralismo.  
APIKA, acaso, peut-être.  
ARABERA, arauera, según, conforme.  
ARAUERA, araberak, según, conforme.  
ARE, oraindik, aún, encore.  
AREAGO, oraindik gehiago.  
ARETO, sala, salón.  
ARIKETA, ejercicio.  
ARINEKETAN, azkar, laster, fito.  
ARMIARMA, araña.  
ARRAKASTA, éxito, succès.  
ARRANGOITZE, Lapurdiko Arcangues.  
ARRAPALADAN, arineketan, korrika.  
ARRAS, gutxi, zeharo.  
ARRUNT, común, corriente, ordinario.  
ASKI, nahiko.  
ATEZAINSA, portera.  
ATONTZE, disponer, arreglar.  
ATXIKITZE, atenerse, adherirse.  
AURREIRITZI, prejuicio.  
AXOLA, ardura.

BA, bada, pues.  
BADAEZPADAN, por si acaso.  
BAHITU, secuestrado.  
BAITEZPADAHO, beharbehurrezko.  
BALDOSA, dalle.  
BARIK, gabe.  
BARRASKILO, marraskilo, caracol, escargot.  
BATZORDE, comisión.  
BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).  
BEDEREN, behintzat, behinik behin, gutienez.  
BEHINOLA, behiala, en otro tiempo, jadis.  
BEREBIL, automóvil.  
BEREBIZIKO, apropiado, escogido, de primera.  
BERRESPEN, ratificación.  
BESTE, aina, bezainbat.  
BESTEKO, ainako, bezainbateko.  
BIZ, izan bedi. (Izan aditzaren forma).  
BULEGO, oficina, bureau.

DAKIEGU, dakigu nonbait.  
DAKUSAGU, ikusten dugu.  
DARAMA, daroa.  
DASTATU, gustado, degustado, probado, saboreado.  
DATEKE, da nonbait.  
DATZA, yace, está, consiste. (Etzan aditzaren forma).  
DATZAZ, dautza, yacen. (Etzan aditzaren forma).  
DEA, da+a. (A bokala, galdeetan eranstean zaio aditzari).  
DEITORATZE, lamentar.  
DEMAGUN, eman dezagun (da:gun).  
DENBORA, denborea, el tiempo.  
DEUS, ezer.  
DEUSEZTU, deusezatu, ezereztu.  
DOHAINIK, dohan, doharik, urrurik, gratis.  
DOHARIK, dohan, dohainik, urrurik, gratis.

DOI DOIA, justo justo, ni más ni menos.  
DONTSU, santo, dichoso, virtuoso. (Honelako kasuetan, ironi kutsua izaten du).  
DUKEGU, dugu nonbait.  
EGINTZAK, egin ezak, egin zak, egin eik.  
EGUN, gaur.  
EI, omen.  
EKANTZE, acostumbrarse, habituarse, integrarse.  
EKIALDE, aguzki alde. Este.  
EKIN, etorgarso con ahinco o insistencia. (Aditz hau intransitiboa da).  
ENGAIAMENDU, compromiso, engagement.  
ERABAT, gutxi, zeharo.  
ERAKUNDE, organismo, institución.  
ERALGI, gastatu.  
EROAN, eramán.  
ERORI, jausi.  
ERORTZE, jauste.  
EROSO, cómodo.  
ERRESUMA, reino, royaume. (ERREINU, reinado, règne. Beraz, Frantzia, adibidez, ez da gaur egunean ez erresuma eta ez erreinu, Estatu bat baizik).  
ESERI, jazarri, jarri.  
ESERTZE, jezartze, jartze.  
ETEKIN, provecho, producto.  
ETORRI, facundia, inspiración.  
EZEZIK, no solamente.  
EZKUTATU, ocultado.

FOBURGO, arrabal, faubourg.  
FROGATU, probado, demostrado.  
FUNTS, fondo, sustancia.

GAITZ, zail.  
GARAMATZA, garoaz, eramaten (croaten) gaitu.  
GISA, bezala.  
GOGARA, gustura.  
GURARI, desira.

HA, hura.  
HAIK, hareek. Haiek (heiek) aktibo, haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 82. horrialdea).  
HALABER, asi mismo, igualmente.  
HASTAPEN, hasiera.  
HAUK, honek. (Hauk aktibo, hauk pasibo).  
HERSTE, heste, hixte.  
HERTSI, hetsi, hitxi.  
HIGIDURA, mugimendu.  
HILDO, surco, sillon.  
HILKIZUN, destinado a ser muerto.  
HOBE EZ, claro está, sin duda.  
HOBETSI, preferido.  
HOIK, horik, horreek. (Hoiek aktibo, hoik pasibo).  
HORBEL, hoja caída, feuille sèche.  
HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).  
HORRETARA, horrela.  
HORRETAZ, beraz, por consiguiente.  
HOSTOTZE, horritzatze, cubrirse de hojas.  
HOTS, a saber, es decir, esto es.  
HUNKITU, conmovido, impresionado. (UKITU, tocado).  
HURA, ha.  
HURBIL, hur.  
HURRUPATU, absorbido.

IA, kasik.  
IGAN, igon, igo.  
IGERTOKI, piscina.  
IHARROSI, sacudido.  
INPERIALIST, Imperialista. (Hitz honek, kasu honetan, galdu egiten du A organikoa, hurrengo berbarekin hitz elkartu bat egiten duelako. Hala idazten du zenbait idazlek).  
IRAGAN, igaro, pasatu.  
IRAIL, septiembre.  
IRAIN, injuria.  
IRITXI, heldu.  
IRRIKITU, hendiduda, fente.  
IRTEN, urten, atera, jalgi.

ISTORIO, hecho narrado, ingelesez story. (HISTORIA, kondaira, ingelesez history).  
ITAUN, galde, galdera.  
JADANIK, ya.  
JAGON, zaindu, gorde.  
JAITSAPEN, jaiste, descenso.  
JARAMON, kasu.  
JARRERA, actitud, postura, posición.  
JASATE, aguantar, soportar.  
JAZARGO, contradicción.  
JAZOTZE, gertatze.  
JIPOI, zurra, tunda, volée de coups.

KABU, buru.  
KASA, pentzu, cuenta. (Bere kasa = por su cuenta).  
KASU, adibidez.  
KATIGATU, encadenado.  
KAUSITU, encontrado; acertado.  
KAZETARI, periodista, journaliste.  
KOKATU, situado.  
KOSTUMATU, vestido a estilo teatral.  
KUDEATZAILE, gerente.  
KURAIATU, adoretu, animado.

LAGA, utzi.  
LANDA, kanpo, lekora, fuera.  
LARRAIN, zelai.  
LARREGI, gehiegi, cobera.  
LEGEZ, loz, bezala.  
LEKUKO, testigu.  
LEKUKOTASUN, testigantza.  
LEPAHORI, marta.

MAISEATU, criticado.  
MAIZ, sarri.  
MENDEBALDE, mendebal alde, occidente, Oeste.  
MERKATARI, mercantil, comercial. (Merkatari hitzak eta beronen antzekoek, hurrengoarekin berba elkartu bat egiten dutenean, galdu egiten dute azken bokala eta n kontsonantea L bihurtzen da).  
MERKATALGO, comercio.  
MINTEGI, seminario.  
MORROI, morroin, individuo.  
MUNA, ribazo, porción elevada de un terreno, talus.  
MUXIKA, melocotón, pêche.

NABARI, manifiesto, notorio, evidente.  
NABARITZE, percibir, patentizar.  
NAHI, pretendiente a.  
NEHONDIK, inondik.  
NEHON, inor.  
OHOSTU, obatsi.  
OIHAN, baso.  
OIHARTZUN, eco.  
OKARAN, ciruela, pruno.  
OMEN, ei.  
ORDEA, en cambio

ORO, guzti.  
ORO HAR, en conjunto, habida cuenta de todo.  
OROKOR, general.  
OSTERA, berriro.  
OSTERATXO, osterak laburra, itzuliño, vueltecita.  
OTSO, lobo, loup.

PARADA, abagadune, aukera, era, erati, ocasión.  
PEROGRUILLADA, aspaldiko egia.  
POZARREN, pozik.  
POZKARIO, bozkario, alegranzia, silai-tasun.  
PRESESKI, precisamente.  
PROLETAL, proletario. (Proletari hitzak eta beronen antzekoek, hurrengoarekin berba elkartu bat egiten dute azken bokala eta n kontsonantea L bihurtzen da).

SARRI, maiz.  
SASI-ESKOLA, inasistencia a la class.  
SATITSU, musaraña.  
SEGUR, seguru.  
SOBERA, gehiegi, larregi.  
SORKURA, origen, nacimiento.

TAULA, tablado.  
TENORE, garai, ordu, sasoi.  
TINKATU, recalado.  
TIRRIA, inclinación, quereña, anhelo, prurito.  
TXIBATO, salatarri.  
TXILIO, oihu, chillido.  
TXIRTXILLATU, completamente deshilachado. (ZIRTZILATU, deshilachado, effile).

UDALETXE, Herriko Etxe.  
UGAZABA, amo, dueño, maître.  
UKUILU, estable, établo.  
URTEKO, por año.  
UZKALDU, atado, ligado.  
UZTAIL, julio.

XAHUTZE, derrochar.  
XERTAKETA, injerto, transplante.  
ZAILDU, saiatu, bermatu.  
ZALANTZA, vacilación.  
ZEINEN, zein.  
ZELAN, zela, nola.  
ZEREN, zo, pues.  
ZERGA, contribución, impuesto.  
ZERTZELADA, zertzeladea, el detalle. (Berba hau mugatua dela adierazten du azentuak. Honelako kasuetan, ez da komenigarri azentua jartzea?).  
ZINEZ, benetan.  
ZIZTU, gran velocidad, grande vitesse.  
ZORTE, destino.  
ZUZPERTU, revivido, reavivado.  
ZUZPERTZAILE, reavivador.

DANTZATOKI GOXOA Igaztez ta jai egunez: 6 tatik 10 ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

**AMA & LUR** RESTAURANTA

KAFETEGI



# Erlatibitatearen teoria eta philosophia

Esku artean dudan liburu batek, gai honi buruzko artikulua batzuk idaztera bultzatu nau. Liburuaren egilea, Koloniako Unibertsitatean irakasle den P. Mittelstädt dugu. Liburuan, 1905. urteaz geroztik, fisikaren adar biren desarroilatzek filosofi kontzeptuetan ukan dituen ondorioak aztertzen dira. Fisikaren arlo bi hauk,\* erlatibitatearen teoria eta mekanika kuantikoa dira. Teoria hauek, philosophia klasikoak a priori egiazat ukan dituen kritzi batzuk oker zeudela frogatu\* dute.

Oraingo honetan, erlatibitatearen teoriaren ondorio bat aztertuko dugu, preseski\* denborari buruzko kontzeptua. Honetarako, lehenik philosophian (edo zentzu komunean) izan den denborarekiko kontzeptzioa aztertuko dut, gero erlatibitatearen teorian hartzen duenarekin konparatzeko.

## DENBORA ABSOLUTUAREN IDEIA

Philosophia klasikoan beti pentsatu izan da, a priori, denbora absolutuaren ideia. Aurreritzi\* hau nolabait logikari lotzeko, jarraiko arrazoinamendua egiten izan da:

Kontsidera ditzagun espazioko puntu bi, A eta B. Bi puntu hauk geldirik daude. A puntuan gertaera bat jazotzen\* da  $t_A$  mementoan, eta B puntuan beste gertaera bat  $t_B$  mementoan. Instante berean gertatzen badira, gertaera simultaneoak direla esanen dugu: ( $t_A = t_B$ ).

Nola neurtu dugu simultaneitatea? Demagun,\* gu garelara, simultaneitatea neurtzen ari direnak. Espazioko edozein puntu batetan gaude. A puntuko gertaera jazotzen denean, seinale bat bidaltzen da, abiada infinitu batez. A puntutik gureganantz. Abiada infinitua duenez, seinale horrek ez du denborarik behar guregana heltzeko, eta  $t_A$  instantean bertan helduko da. B puntuko gertaerarekin ere berdin egiten dugu; beraz, B puntutik datorren seinalea  $t_B$  denboran helduko da guregana.  $t_A$  eta  $t_B$  berdinak badira, gertaera bi horik\* simultaneoak direla esanen dugu. Eta berdin esan lezake beste edozein obserbatzailek, seinale-abiada infinitua delako. Beraz, espazioan dauden guztiek, era berean neurtzen dute DENBORA hori. Obserbatzaile batentzat simultaneoak diren gertaera bi, beste edonorentzat ere simultaneoak izanen dira.

Era honetan, edonongo orlojuak ordu bera agertuko du, eta denborá\* berdin jazoko da orloju guztientzat. Beraz, orlojuak neurtzen dutena, kantitate absolutu bat da: denborá ABSOLUTUA da.

Kontuan ukan dezagun, horretaz,\* philosophia klasikoaren puntu bi:

- oinharritzat, seinale-abiada infinitua dela kontsideratu dugu.
- era honetan finkatutako denborá absolutua da, hots,\* errealitate OBJEKTIBO bat; eta inongo experimentuak ezin dezake denbora horren martxa alda. Denborá, aurrera doan errealitate objektibo bat da.

## EINSTEINEN JARRERA

Einsteinek, argi abiadaren konstantetasuna ulertu ahal izateko, jarrera\* berri bat hartu zuen, naturako gertaeren aurrean.

Batetik, termino subjektibo bat sartzen du arrazoinamenduan: obserbatzailea. Bestetik, fisikaren lege na-

gusi bezala, naturaren eta obserbatzailearen arteko harremana hartzen du: experimentua. Azken batetan, experimentuak adieraziko du lege baten egiaztasuna.

Jarrera hau hartuz gero, kontzeptu bat finkatzekotan, naturako legeekin ados\* dagoen experimenturen batetan onharritu behar da; eta ez dute balio aurreritzi\*ek, hau da, a priori hartutako eritziak.

Baina experimentuak egiteko tresnak, naturakoak direnez, naturako legeen pean aurkitzen dira; beraz, ez dira perfektuak, LIMITAZIO batzuk dituzte eta.

Philosophia klasikoan, seinale-abiada infinituez mintzatu gara; baina naturan ez dago seinale-abiada infiniturik. Experimentuek, abiadarik handiena argiarena dela agertu dute (300.000 km/s). Gainera, argiaren propietate berezi bat ere agertu dute: Argi abiada\* berdina dela edozein obserbatzailearentzat. Beraz, naturaren limitazio hau kontuan ukan behar ditugu edozein arrazoinamendutan.

Einsteinek, honetaz konturaturik, simultaneitatea neurtzeko methodoa berriro aztertu behar zela esan zuen, naturaren limitazioen arauera.\* Methodoaren birpentsatze honek, denboraren kontzeptu absolutuaren birplanteatze batera eraman\* zuen.

## ERLATIBITATE THEORIAREN ZENBAIT ONDORIO

Lehen aipatu puntuetan oinharriturik, kalkuluak eginez gero, jarraiko ondorioak sortzen dira:

- ezin daiteke simultaneitateaz mintza, obserbatzaileak kontuan hartu gabe.
- simultaneitate absoluturik ez dagoenez gero, ez dago denbora absoluturik.

Ikusten denez, philosophia zaharraren pentsamoldea hankaz gora jartzen dute ondorio hauek. Gu ere aho zabaliak geratzen gara ondorio hauen aurrean. Gehiago harritzeko oraindik, denbora absolutu ezaren subondorio bat aipatuko dugu.

Philosophia klasikoan, gertaera bi, haien denborarekiko ordenamenduan kontsideraturik, hiru eratan klasifikatzen dira, bata bestearekiko: iraganekoa,\* presentekoa edo etorkizunekoa; eta hau guztiau era absolutu batetan, hots,\* edozein obserbatzailearentzat.

Erlatibitatearen teorian hiru kategoria egon arren, kontzeptuz ez dira berdinak. Kasu honetan, iragan absolutua, presentea eta etorkizun absolutua daude.

Ikusten denez, presentea ez da absolutua, simultaneitate absoluturik ez dagoelako; eta iragana, presentea edo etorkizuna izan daiteke, gertaera bi horik experimentatzen ari den obserbatzailearen arauera.

Erazz uler daiteke orain, pentsamolde klasikodunen artean teoria honen aurka egon diren kontrajartzeak.

Hala ere, Einsteinen teoria kritikatzeko bide bakarra, hark hartu zuena da. Experimentua izanen da azken epailea. Eta experimentuek sobera\* frogatu digute Einsteinen teoriaren egiaztasuna.

J. R. ETXEBARRIA

daude, **dagoz**  
dezagun, **daigun**  
digute, **deuskue**

ditzagun, **daiguzan**  
lezake, **leike**  
zeuden, **egozen**